

Kontzeju

www.ohotzi.eus



Herriko Ohotzi



@herrikoohotzi



herrikoohotzi



herrikoohotzi

DELIK

Ohotzi aldizkaria | 2016ko Apirila | 260. zenbakia



AGIR ERROCKA IDE KAIXO MUSIKA ELTZIA

Eltziako lokal berrietara pasako dira aurrerantzean herriko musika taldeak



HERRITARREN GARAIA DA

Ekainaren 12ko herri galdeketari zilegitasuna emateko ahalik eta sinadura gehien batu nahi ditu Erain Debagoiena ekimenak

Ekainaren 12an Debagoiena osoan eta Aramaion egingo den Herri Galdeketaren aurkezpen ekitaldia egin zen Oñatin martxoaren 12an, Santa Ana aretoa goraino bete zuten herritarren aurrean. Hiru herritarren artean irakurri zuten herri galdeketaren aldeko adierazpena, prozesuaren eragilea *Erain Debagoiena* taldea izango bada ere, herritarrak direlako prozesu honetako benetako protagonistak.

Azken hiru urteotan *Gure Esku Dago* ekimenak erabakitzeko eskubidearen alde antolatutako ekitaldi ezberdinak gogoratu ondoren,



Maider Arregi, Ibis Rodriguez eta Jose Luis Madinagoitiak irakurri zuten galdeketaren aldeko adierazpena

erabakitzeko garaia heldu dela esan zuten, ekainaren 12an burutuko den herri galdeketaren bidez. *'Nahi alduzu izan euskal estatu independente bateko herritar? Bai/Ez'* izango da galdera, eta Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztiek parte hartu ahal izango dute.

Gure Esku Dago ekimenari jarraipena eman eta herri galdeketa antolatzeko eratu den *Erain Debagoiena* taldeak sinadura bilketa kanpaina jarri du orain abian. Ahalik eta sinadura gehien batu nahi dituzte maiatzaren 2ra bitartean, herri galdeketari zilegitasuna emateko. Oñatin, dagoeneko 1.000 herritarren sinadurak batu dira.

Hitzaldiak eta ikas-tailerrak

Ekainean egingo da herri galdeketa Erain elkartearen eskutik. Horren harira, zenbait (in)formazio ekintza prestatu ditugu Oñatin.



Apirilaren 13, asteazkena, Jon Maia bertsolaria entzuteko aukera izango dugu, 19:00etan kultur etxean. **Apirilaren 19 eta**

27an berriz, 18:30etan, kultur etxeko goiko gelan ikas-tailerrak izango ditugu. Mahai inguruan batuko gara hainbat ideia eta kontzeptu irakurtzeko eta komentatzeko geure artean: autodeterminazioa eta erabakitzeko eskubidearen arteko ezberdintasunak; munduan eman diren sezesio prozesuak eta saiakerak; erabakitzeko eskubidea legediaren ikuspuntutik; euskaldunok dugun lurraldetasunaren korapiloa; etab.

Guztiok zaudete gonbidatuta parte hartzera, ez baitugu erabakitzeko eskubidea bozkabatera bakarrik mugatu nahi; bozkaren aurretik eta ondoren ikasi, hausnartu eta eztabaidatu beharra daukagu.

Lierni Olmedo eta Aimar Uribesalgo

HERRITARREN IRITZIAK



» JASONE ZUBILLAGA

Gurre herriak eskubidea dauka bere etorkizuna erabakitzeko, kontrakoa sinistarazi nahi badigute ere. Beraz, behar beharrezkoa da herritar guztiak aktibatzea eta denon artean erabakitzeko nora jo nahi dugun, kanpokoan esku utzi barik gure etorkizuna. Geu mugitzen bagara, mugiaraziko ditugu gobernuak, parlamentua eta behar direnak.



» JAVIER GALARZA

Demokrazia baten oinarrizko zutabeetako bat da jendeari galdetzea eta jendearen iritzia jakitea. Horregatik, galdera honen eta beste batzuen alde nago. Jendeari esango nioke inportantea dela denon partehartzea eskubide hauek aurrera atera ahal izateko.



» ITZIAR TATEGI

Gure Esku Dagoren leloak dioen moduan, geuk hartu behar ditugu gure etorkizunaren inguruko erabakiak. Zenbat eta urrutiago hartu erabaki horiek, orduan eta gutxiago hartuko gaituzte kontuan. Independentzia bai ala ez? gero erabakiko dugu, baina oraingoz behintzat, erabakitzeko eskubidea aldarrikatu behar dugu.



» IBIS RODRIGUEZ

Hasieratik nago ekimen hau babesten, uste dudalako errespetatu egin behar dela herrien erabakitzeko eskubidea. Beraz, animatu egin nahi ditut herritarrek parte hartzera, prozesu honen emaitzaren arabera izango baita bertan bizi garen guztion ongizate maila.



» JOSE MANUEL AZPIAZU 'KLEMENTX'

Erabakitzeko eskubidearen alde gure herrian sortu den mugimendu polit honekin bat egitera animatzen dut jendea eta, bereziki, gazte jendea. Nik uste dut gazte jendeak bultzatu behar dituela era honetako ekimenak, gazteak beraiek direlako gure herriaren etorkizuna.



» ELI ORDORIKA

Uste dut oinarrizko eskubidea dela erabakitzeko eskubidea. Beraz, animatu egin nahi dut jendea galdeketa parte hartzera. Bakoitzak erabakiko du zer bozkatu, baina inportantea da jendeak bere iritzia ematea, gure eskubidea delako.



» IGNACIO ETXEBERRIA 'TXATO'

Zuzenean eragiten diguten gaien inguruan gure iritzia ematea oinarrizko eskubidea da eta defendatu egin behar dugu. Hemen ideologia ezberdinetako pertsonak gaude, baina denok dugu gauza bat komunean: gure etorkizuna erabaki nahi dugu. Beraz, animatu parte hartzera.

1.000 sinadura batu dira dagoeneko herri galdeketa alde.




» JON IRIZAR

Babesa eman diot ekimen honi, erabakitzeko eskubidea aldarrikapen bat baino gehiago eskubidea delako, eta gaur egun ukatua daukagunez aldarrikatu egin behar dugu lortu arte. Beraz, batez ere jende gaztea animatu nahi dut sinatzera eta herri galdeketa parte hartzera.



» JULI IBARGUREN

Nik uste dut erabakitzeko eskubide osoa daukagula eta horregatik sinatu dut herri galdeketa alde. Herritar guztiak animatzen ditut erabakitzeko eskubidearen alde egitera. Oso inportantea iruditzen zait. Gero bakoitzak aukeratu du bere ustez egokiena dena.



» GONTZAL BELATEGI

Inportantea iruditzen zait halako herri plataformei babesa ematea. Erabakitzeko eskubidea internazionalki onartuta dago eta ez zait ondo iruditzen Espainiak ukatzea. Beraz beharrezkoa iruditzen zait parte hartzea eta denok iritzia ematea. Gero bakoitzak erabakiko du zer bozkatu.



» MIKEL LIZARRALDE

Hasieratik nago Gure Esku Dago dinamikari babesa ematen. Azken batean geure herria da eta geuk erabaki behar dugu. Inportantea da herri galdeketa egitea, eta animatu egin nahi ditut herritarrek parte hartzera, beharrezkoa delako denon babesa honelako ekimenak aurrera ateratzeko.



Errekaldeko lokaletako bi



Agur Errockalde



Kontzeju | 4 | peñik

Herriko musika taldeak mudantzan daude. Azken hogei urteetan Errekaldeko Herri Eskolako sotoan erabili dituzten lokalak utzi eta ETEO zaharrean Udalak egokitu dituen lokal berrietara (Musika Eltzia) aldatuko dira datozen egunetan.

“Azkenian!” atera zaie barru barrutik Xabi Elorza *Txirli* eta Mikel Marcori, Musika Eltzian batuko diren taldeen ordezkariak. “Errekalden ezta egoterik; ez musika taldiok, ez beste inor. Tremendako ume-dadia dau (egunian 25 litro ur batu izan dittugu lokal batian); instrumentuak hondatu egitten dira, osasunerako ez da ona eta baldintza tekniko-akustikuak be ez dira bapebe gokixak...”

“Igual, hamabost urte itxoin barik, zazpigarrenian planto egin bihar geben” dio Txirlik, “baiña ez geben egin, eta honaiño allau gara”. Onartzen dute beraiek ere ez dituztela Errekaldeko lokalak behar beste zaindu. “Egixa da, bai. Lekua hain eskaxa izanik, geuk be ezto gu zaindu, eta poliki poliki eskaxagua bihurtu da; baiña gauzak beste modu

batera eginda be... Ha ez da leku aproposa”.

1980. hamarkadan hasi ziren herriko musika taldeak (*Nekez*, *Berakatz Band*, *Saz le Bolo...*) Errekaldeko sotoa erabiltzen. Gero, 2001ean eraberritze lan inportantea egin zuen Udalak, ordura arte zeuden bi lokalak erdibitu, lau lokal berri egokitu eta hiru intsonorizatu. Eta azkenik, 2004an beste bi lokal egokitu zituen Udalak. Beraz, azken urteotan 10 lokal egon dira Errockalden, eta 25-30 talderen artean erabili dituzte.

BALANTZEA

Bistan dago rock talde ugari sortuz joan direla Errekaldeko lokalen inguruan eta, beraz, baldintza oso prekariotan izan bada ere, *Errockaldek* bere funtzioa bete duela esan liteke. “Hasierako urtiak oso onak izan ziran” gogoratzen du Txirlik. “Ilusiñua eguen, talde barririk... Entsaiaiteko lekuri ez eukain gaztairi aukera bat emun osten Errekaldek. Gaiñera, lehenengo urte hareittan harreman estua egon zan taldien artian; elkarrengandik ikasten geben eta giro polita

Errekaldeko lokaletan ez zegoen egoterik, ez musika taldeok, ez beste inor. Lokaleko eta eguneko 25 litro ur atera izan ditugu.



eguen gure artian. Gero, egixa da, jende gaztia sartu ahala, elkarren arteko giro hori hoztitzuz fan zala. Bakoitzak bere lekua eukan entsaiatete eta punto.”

ORAIN 'ELTZIA'RA

Baina Errockalde historia da jada. Datozen egunetan instrumentuak batu eta ETEO zaharreko sotoan udalak egokitu duen Musika Eltzia aldatuko dira taldeak.

Danera, 30-35m²-ko hamar lokal eta 60m²-ko handiago bat egokitu ditu Udalak bertan,



Xabi Elorza 'Txirli' eta Mikel Marco, Musika Eltzeko kideak

Errekaldeko lokaletako bat

**MUSIKA ELTZIA**

10 lokal txiki (30-35m²) eta haundi bat (60m²) egokitu ditu Udalak Musika Eltzian (ETEO zaharreko sotoan) 267 mila euroko (BEZ kanpo) inbertsioa eginda

Kaixo Musika Eltzia

behar bezala intsonorizatuta, eta 267 mila euroko inbertsioa eginda. Lokal handia *Trikitxaranga* eta *Batukada Feminista* bezalako taldeek erabiliko dute, eta gainerako 10 lokalak 'Musika Eltzian' izena eman duten 41 musika taldeek (tartean 4 bakarleri) partekatuko dituzte.

Musika Eltzia abantaila ugari ekarriko dizkie. "Lokalak teknikoki egokiak izatiaz gain, leku barrira goiaz, eta horrek ilusiñua sortzen dau" uste du Marcok; "gogo gehixaukin joango gara entsaiotara, mate-

Eltziako kide izatea oso aberasgarria izango da. Geure arteko eta beste eragile batzuekiko elkarlana sustatu behar dugu

“

rial barrixa erostera animauko da jendia..."

Gainera, ordutegi mugarik ez dute izango Eltzian, eta lokalak behe solairuan egoteak asko erraztuko ditu instrumentoen zamaketa lanak. Aparkaleku arazorik ere ez dute izango. Beraz, abantailak baino ez dituzte ikusten eltzian.

ELTZIA FILOSOFIA

Errekaldeko ETEOrako aldaketa ez da lokal aldaketa hutsa izango. Aurrerantzean Eltzia egitasmoaren parte izango dira musika taldeak, herriko beste kultur eta gizarte eragileekin batera, eta hori ere oso positiboa izango dela uste dute Txirlik eta Marcok. "Elkar ezagutzan, errespetuan eta elkarlanian oiñarritutako funtzionaitteko eredu berri bat eruan bihar dogu aurrera denon artian, eta horrek ardura eta betebihar batzuk dakar, baiña hala be, ininteresgarria eta aberasgarria dala uste dogu. Bizio zaharrak alde batera jare eta geure buruari bakarrik begiratu ordez, dinamika barri bat sortzeko gai izan behar dogu, geure arteko eta Eltzian dauzen beste talde eta

eragillien arteko sinergiak aprobetxaitteko".

Txirli konbentziturata dago proiektu berriak sortuko direla taldeen arteko elkarlan edo fusio horretatik. "Adibidez, disko bat sortzeiak diziplina ezberdiñak (musikia, irudixa, testuak...) uztartzen dittu, eta orain hori danori han bertan eukiku".

GRABAZIO ESTUDIOA

Bigarren fase baterako ETEO zaharreko sotoan bertan hiruzpalau lokal gehiago egokitzeke aukera dago (beharra ikusten bada) eta grabaziño estudio bat egokitzeke aukera ere jasota dauka Udalak. "Guk, musikari moduan, esan geke grabaziño estudio bat oso interesgarria eta onuragarria izango zala. Bultzada haundixa emungo lotzake sorkuntza lanari. Baiña beste talde bat dabil gai hori aztertu eta bideratu guran".

Musika Eltzian batuko diren 40 musika talde eta bakarlariek 'Zai zoi bele' musika kolektiboa eratu dute. Estatutuak eta barne araudia ere prest dute, Udalarekin adostuta, eta lehenbailehen bertara joan nahi dute.



XX. mende hasierako OSTATUAK

Bujero, Fonda Ona, Txarriduna, Cenicero, Goiko Txurruka, Etxeberria...

Oñatiko herrigunean ostatu ugari izan ziren aurreko gizaldiaren hasieran. *Fonda San Migel* eta *Fonda Ona (Perratzaile)* Kale Zaharrean, *Fonda del Comercio (Bujero)* Zazpibidietako bidegurutzean, *Fonda Catalina*, *Txarriduna*, *Etxeberria* eta *Cenicero* Kale Barrian, eta *Goiko Txurruka* Atzeko Kalen. Goñi denda-tabernak ere eskaintzen zituen lo-lekuak Kale Barrian.

Guztien artean *Etxeberria* da gaur egun arte iraun duen bakarra, eta bertan hasi dugu XX. mende hasierako Oñatiko ostatueta zehar egin dugun ibilalditxo hau. *Paulitona* bezala ezaguna zen ostatu-jatetxea 1932an zabaldu zuten Pablo Etxeberria eta Francisca Urtaza senar-emazteek, Atzeko Kaleko 14an, *Kirriñen* etxean.



Etxeberria tabena-jatetxea Pablo Etxeberriak eta Francisca Urtazak zabaldu zuten 1932an Atzeko Kalean, Kirriñeneko etxean. Argazkian daude biak mostradorean, Reyes Urtaza karnazerua eta Emeterio Etxaniz alparगतagilearekin.

ETXEBERRIA OSTATUA

Donostiatik etorri zen Oñatira Etxeberria sendia. Francisco Esnal (1868-1916) parrokiako organujolea eta. besteak beste, *Arantzazuko Amaren Salbea* konposatu zuen abade eta musikagilearen senideak ziren.

Pablo Etxeberria sukaldaria zen ogibidez. Donostiako *La Urbana* jatetxean lan egin zuen, kasinoaren urrezko urteetan. Maila handiko sukaldaria zen, eta, esaterako, berak prestatu zuen, Pablo Txurrukarekin batera, San Prudentzio-Oñati trenbidearen inaugurazio eguneko banketea, Victoria Eugenia erregina eta bestelako agintarientzat 1923ko irailaren 30ean.



Pablo eta Carlos Etxeberria aita- semeak

Baina Donostiako lana utzi eta Oñatira etorri behar izan zuen aitaren aroztegian laguntzera, eta hau itxi behar izan zutenean, Carlos Urtaza aitagarrearekin lokal bat utzi zion Kirriñeneko etxeko behe solairuan, taberna-jatetxe bat zabaltzeko.

Eta hala, Atzeko Kaleko 14 zenbakian zabaldu zuten Pablo Etxeberria eta Francisca Urtaza senar-emazteek Etxeberria 1932an. Behe solairuan taberna zeukan eta goiko lokal batean otorduak ematen zituzten. Bertan egon ziren hogeitun urtez, eta 1943an Kale Barrian eraiki zuten etxera aldatu zuten negozioa.

Taberna eta jatetxeaz gain, zazpi logelako ostatua ere jarri

zuten eraikin berrian. Logela guztiak betetzen zirenean konfiantzako bizilagunen etxeetara bidaltzen zituzten bezeroak.

Pablo, aita, 1961ean hil zen, eta handik aurrera Carlos semeak hartu zuen ostatuaren ardura. Donostian ibilia zen Carlos ofizioa ikasten, Azaldegia sukaldari ospetsuarekin *Continental* hotelean, besteak beste.

Jantokia ez ezik, dantzarako lekua ere ederra zuen Etxeberria jatetxeak, eta, beraz, ezkontza eta bestelako ospakizun asko egiten ziren bertan.

Sukaldaritza ikastaroak ere antolatzen zituzten Etxeberria jatetxean, tarteka. Oñatiko eta inguruetakoa emakume ugariak parte hartzen zuten. Errezetak ematen zizkien Carlosek, eta sukaldatu ondoren, bertan jaten zituzten prestatutako jakiak.

Meunière erako mihi-arraina (*lenguado*) eta legatz betea ziren bertako espezialitateak. Gaur egun ere oraindik esaten die jendeak ez dutela jan sekula

Eskuman, Etxeberria berriko mostradorean ateratako argazkia: Carmen eta Carlos Etxeberria, Maritxu Guridi, Pablo Etxeberria eta Axun Barrena. Beheko argazkian Consuelo Etxeberria agiri da, Monseñor Ildebrando Antoniutti Vaticanoko nuntzioari eta Jaime Font y Andreu Donostiako gotzainari zerbitzatzen (Arg.: Plazaola).



Etxeberrianekoa bezalako mihi-arrainik. “Toneladaka languau eman dugu” gogoratzen dute Carmen eta Consuelo ahazpek; “trenez ekartzen genuen goizero Donostiatik. Eta trenak kendu zutenean errekadistaren bidez”.

Herrikoak ez ezik, kanpoko saltzaileak eta turistak ere izaten ziren Etxeberrianeko bezero. “Frantziarrak asko etortzen ziren” gogoratzen dute Carmenek eta



SAN MARTINEN
1. fasea martxan

italde
Ramon Irizar kalea 2
T. 943 78 27 07
www.italde.com

3 logela 186.000, €-tik (± 872)
KOKAPEN ONENEAN !!

Consuelok. “Oso etxeko hartu izan ditugu beti bezeroak, eta urtero etorri izan dira luzaroan. Batzuekin gaur egun arte mantendu dugu harremana. Oso oroitzapen politak ditugu”.

TXARRIDUNA

Etxeberriarekin ia parez pare Txarriduna ostatua egon zen urte askotan. Ondoko argazkietan ikus daitekeen moduan, gaur egun Kooperatiba dagoen lekuan egon zen (Rodrigo Mercado de Zuzolaren jaiotetxean), eta Kale Barriatik nahiz Atzeko Kaletik zeukan sarrera.

Zaldibiako Juan Joxe Sukiak eta Gaintzako Martina Garmendiak zabaldu zuten. Taberna ez ezik harategia ere jarri zuten lokal berean, aita tratantea zena (Ramon Irizar kalean, Zubialde elkarte dagoen inguruan, hazten zituen txerriak).

Oso popularra zen Txarriduna. Beheko solairuan taberna eta goikoan jatetxea zeukan. Hainbat kinttada, despedida, frittada eta afari-merienda egiten ziren bertan; eta, inoiz, txoferren bat ohe beharrean aurkitzen bazen, lo-lekua ere moldatuko zioten nola edo hala, bertako alaba Dorita Sukiak azaldu digunez. 1972an itxi zuten Txarriduna.

FONDA DEL COMERCIO ‘BUJERO’

Zazpibidietako bidegurutzean (eliza aurrean) egon zen Fonda del Comercio ostatua Bergarajauregitarrak XIX. gizaldiaren amaieran jasotako etxearen beheko aldean. Puntu onean zegoen (estaziotik hurrean, Arantzazuko autobusen irteera lekuan) eta sartu-irten handiko ostatua izan zen. Ezagutu zutenek diotenez, instituzio bat izan zen Oñatin.

Nonbait, sarrera estu samarra zuelako-edo, *Bujero* ezizena jarri zioten. Gerra ostean Faustino Inza *Txaiña* eta Liborio Lizarralde *Uztarriña* ere egin ziren ostatuaren kargu. Liborioren denboran Bar Restaurante Izarra zuen izena, baina mundu guztiak *Bujero* izenez ezagutzen zuten. 1960an itxi zuten.



Goiko argazkietan (Plazaola), Bar Restaurante Charriduna ostatuko sarrera biak, Kale Barriakoa eta Atzeko Kalekoa.

Eskuman, Txarridunako ugazaba Sukia-Garmendia sendiko hainbat kide: Juanito Sukia, Juan Lizaur, Pablo Etxeberria, Eugenia Sukia, Beatriz Sukia, Martina Garmendia, Dorita Sukia eta Pepita Urzelai



CENICERO

Cenicero ere izen handiko ostatua izan zen XX. mende hasieran. Etxaluzeko plazatxoan zegoen, ondoko argazkian ikusten den moduan. Jatetxea ez ezik, fonda ere bazen, etaestimazio handia zeukan herritarren nahiz kanpotarren artean. Galdostarrena zen ostatua, eta hauek Elgoibarrera joan zirenean Urubilgo Guriditarrek hartu zuten eta handik aurrera *Urubil* izenez ezagutu genuen. Hauek itxi ondoren, Ikastolaren eta Laixanen aldeko taberna bezala ere erabili izan zen.



Goian, Txarridunako zerbitzari taldea. Behean, *Bujero* ostatua.

FONDA ONA ‘PERRATZAILE’ ETA GOIKO TXURRUKA

Izen handiko beste ostatu bat *Fonda* edo *Hotel Ona* izan zen, Kale Zaharreko iturriaren aurrealdean. Cipriano Zubiria eta bere emazte Trinik zabaldu zuten XX. mende hasieran. Ciprianok perratokia ere bazeukan Aita Madina kale aldera, eta horregatik, *Perratzaile* izenez ezaguna



zen ostatua.

Fonda-Hotel Onako bisitari ospetsuen artean Niceto Alcalá-Zamora dago, Espainiako II. Errepublikako presidentek 1933an Oñatira egindako bisitaldian Perratzailenian bazkaldu baitzuen.

Ciprianok hotela utzi ostean, Ricardo Mendigurenen sendiak hartu zuen errentan hotela 1953an, eta 1969ra arte egon ziren bertan. Beheko solairuan taberna, jantoki txiki bat eta sukaldea zeukan. Lehenengo solairuan ehun bat pertsonentzako jantoki ederra zeukan Kale Zaharra aldera, eta bi ohedun sei logela eder Aita Madina aldera. Bigarren solairuan ugazabak bizi ziren eta hirugarrenean ohe bakarreko zortzi logela zeuden. Aita Madina kale aldera sei bat autorentzako garaje ederra zeukan.

Mendigurentarrek hotela utzi zutenean Errioxako familia bati alokatu zioten taberna eta lehen solairuko Txantxiku Txoko elkar-tea egon zen hainbat urtez.



Goian Cenicero ostatua (Gomendio-Lizaur funtsa). Eskuman Ricardo Mendiguren, Hotel Onako atarian.



Madinatarren *Goiko Txurruka* ostatua ere oso popularra izan zen Atzeko Kalen, gerra aurreko urteetan batez ere. Lokalik ez zuten alderdietako herritarren topalekua omen zen. Taberna eta jatetxea ez ezik, apopilo-etxea ere izan zen. Gero, *El Caserío* eta *Altxaga* tabernak egon ziren bertan, eta *Galizia* gaur egun.

FONDA SAN MIGUEL ETA FONDA CATALINA

Orain arte aipatutakoak izan ziren ostatu ezagun edo popularrenak. Baina horiez gain, lo-lekua eskaintzen zuten beste bi fonda ere egon ziren: *Fonda San Miguel* (Azkunaga familiarena) Kale Zaharrean (gero Ugartetarren pelukeria egon zen etxean), eta *Fonda Catalina*, (Catalina Olalderena), Kale Barrian, gaur egun Kiku denda dagoen lekuan (gerora Batzokia eta Bar Amaia egongo ziren lekuan). Eta kale berean goraxeago, Goñitarren fruta denda, taberna eta ostatu zegoan.

MATRIKULAZIO EPEA: Maiatzean izango da 2tik 11ra. IRAILTIK AURRERA HASTEKO

Txiki-Txoko
Oñatiko Haurreskola


0-2 URTEKO
HAURRENTZAT MAIATZAK 3
ASTEARTEA ATE IREKIAK
17:30etatik - 19:30ra



OLAKUA 19
Telf.: 943716405



Inaziotar Bidea



700 erromes ekarri ditu Arantzazura Inaziotar Bideak

1522an Loiolako Ignaziok Azpeitia eta Manresa artean egin zuen 650 kilometroko erromes bideari deitzen zaio Inaziotar Bidea. Jesusen Lagundiak eta Euskadi, Nafarroa, Errioxa, Aragoi eta Kataluniako turismo arduradunek sustatu nahi duten bidea da, espiritualki, kulturalki, turistikoki eta ekonomikoki daukan balioagatik. Iazko uztailaren 31tik aurtengora Inaziotar Bidearen lehen **JUBILEU URTEA** ospatzen ari da. Hurrengoa 2021-2022an izango da, Loiolako santuaren konbertsioaren eta erromesaldiaren 500. urteurrena betetzen denean

1521ean, soldadu frantziarren aurka ari zela nafar erresumaren defentsan, kanoikada batek larriki zauritu zuen Loiolako Inazio. Sendatze-aldi luzean zehar konbertsio espiritual sakona bizi izan zuen eta haren ondoren Lurralde Santura erromes joatea erabaki zuen. Lehendabizi Loiola eta Manresa arteko bidea egin zuen 1522ko otsaila eta martxan zehar.

Orain, ia 500 urte ondoren, Jesusen Lagundiak Inaziotar Bide hura berreskuratu nahi du, XXI. mendeko gizon-emakumeei antzeko erromesaldi esperientzia bat eskaintzeko helburuarekin, nork bere barruko bidaia egiten laguntzeko asmoz beti ere.

Jesusen Lagundiak ez ezik, Inaziotar Bideak zeharkatzen dituen bost komunitateetako (Euskadi, Nafarroa, Errioxa, Aragoi eta Katalunia) bat egin dute Inaziotar Bidea sustatzeko

helburuarekin, espiritualki ez ezik, kulturalki, ekonomikoki eta turistikoki ere potentzialtasun handia duelako. Kontuan hartu behar da Jesusen Lagundiak 200 unibertsitate dituela munduan zehar, eta 50 bat milioi pertsona hezi dituela. Beraz, uste da Inaziotar Bideak jende asko erakar

dezakeela 2022ra begira.

Iazko uztailaren 31n zabaldu zuten ofizialki Inaziotar Bidea. Manresako santutegian ate santu bat bedeinkatu eta zabaldu zuten, lehen Jubileu Urteari hasiera emanez, eta halaxe egongo da aurtengo uztailaren 31ra arte. Hurrengo Jubileu Urtea 2021-2022an izango da.



Ezkerrean, Arantzazuko kriptako plaka, San Iñaziok bertan gau bat otoitzean eman zuela gogoratuz. Eskubian, Manresako 'Cova de San Ignacio', bidearen amaiera





Bideari buruzko informazioa

Loiola eta Manresa arteko 650 kilometroak 27 etapatan egitea proposatzen du Inaziotar Bideak, baina, jakina, nor bere egoera fisiko eta denboraren arabera antola dezake. Inaziotar Bideak Euskadi, Nafarroa, Errioxa, Aragoi eta Katalunia zeharkatzen ditu. Aurreneko zazpi etapak (143 km.) Euskadin dira, eta bigarrena, konkretuki, Zumarragan abiatu eta Arantzazuko santutegian amaitzen da (19,3 km.). Interesa duenak www.caminoignaciano.org webgunea aurkituko du informazio osoa: etapen deskribapena, horniketak aukerak, aterpetxeak... Bideari ekin aurretik egiaztatzea eskuratzea gomendatzen da Loiolako santutegian.




Inaziotar Bideari buruzko hainbat liburu eta gida argitaratu dira

ANTONIO LARREA / Arantzazuko sakristaua

“Estatu Batuak, Europa, Korea edota Australiatik ere etorri da jendea Inaziotar Bidea egitera”

Kuriositatez, Inaziotar Bidea eginez Arantzazura iristen den erromes kopurua eta hauen jatorria apuntatzen hasi zen Antonio Larrea, eta iazko urtean zehar (2015ko uztailaren 31n zabaldu zen ofizialki Inaziotar Bidea) 654 pertsona zenbatu zituen. Gehienak, 150 bat, estatubatuarrak, baina baita mundu zabaleko beste hainbat herritakoak ere: Panama, Australia, Filipinak, Indonesia, Korea, Alemania, Belgika, Ingalaterra, Frantzia, Italia, Portugal, Katalunia, Madril, Donostia... Batzuk talde antolatuetan etorri izan dira, autobusez. “Batzuk meza eskatzen dute, beste batzuk konfesatu egiten dira edo otoitzaldia egiten dute, eta ibilaldi ederrak ere egiten dituzte Arantzazu aldean. Oinez edo bizikletaz, eta bakarka edo talde txikitan datozen erromesak ere badira, jakina”. Donostia eta Gironatik iritsitako gazte taldeak gogoratzen ditu Larreak, baina gehienak 50 urtetik gorako gizon-emakumeak izaten dira. Poliki poliki Inaziotar Bidea indartuz joango dela uste du, jesuiten itzala handia baita munduan.



EZKONTZETAN Etxe-Aundi

2016 urtean

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com

BATIS OTAEGI / Gomiztegiko Artzain Eskolako zuzendaria

“Artzain eskolatik pasa diren 245 ikasleetatik 142 ari dira profesional bezala”

» 20 urte beteko ditu Gomiztegiko Artzain Eskolak datorren urtean

2015/16 ikasturtea amaitu berritan, hurrengo prestatzen hasita daude Gomiztegiko Artzain Eskolan. Hogeigarrena izango da. Bertako zuzendari Batis Otaegirekin hitz egin dugu.

**Zabalik duzue 2016/17 ikas-
turterako izen-emate epea?**

Bai, Artzain Eskolan bertan (943251008) edo HAZIren edozein bulegotan egin daiteke aurre-matrikula. Ez da titulaziorik eskatzen. Gero, uztailean aukeraketa egiten dugu, plazak mugatuak direlako (14 edo 15 ikasle gehienez).

**‘Motibazio karta’ eskatzen
diezue izena ematen dutenei.
Zergatik?**

Azken urteotan aldatu egin dugu pittin bat gure filosofia, eta lehenasuna ematen diegu artzantzan aritzeko benetako gogoia, bokazioa eta aukerak dituzten ikasleei. Baserrikoak ote diren, belardirik ote duten, animaliekin esperientziarik ba ote duten... kontuan hartzen dugu aukeraketa egitearloan, eta, jakina, motibazioa jakitea



“ 1.000 euroko soldata atera daiteke
180 bat buruko artalde batekin

ere inportantea da. Gaur egun ekonomia aldetik gauzak oso justu daude eta benetako bokazioa behar da artzantzan aritzeko, bestela nekeza da.

Orain, gainera, 3.000 euroko beka sistema bat jarri dugu martxan, eta ikasturtea ia doan ateratzen zaie.

**19 ikasturtetan 245 ikasle
pasa dira artzain eskolatik.
Horietatik zenbatek dute
artzantza bizibide?**

137 dira profesional bezala ari direnak; batzuk hobeto, beste batzuk zailtasun gehiagorekin,

baina denak ere konpromiso handiz. Horiez gain, beste bost pertsona ari dira tekniko gisa lanean elkarrekin ezberdinetan: esnea kontrolatzen, intseminazioan, animalien aukeraketan...

**Irailan hasi eta martxoan
amaitzen da ikasturtea artzain
eskolan. Guztira 895 ikastordu,
teoria (391 ordu) eta praktika
(504 ordu) uztartuz. Nahikoa
da ofizioa ikasteko?**

Formazio integrala eskaintzen du artzain eskolak: orientazio produktiboa, alimentazioa, ardi ugalketa eta hautaketa teknika, tratamendu prebentiboak, produktuen merkaturatzea, gestio tekniko-ekonomikoa, gaztagintza...

Base on bat ematen du, eta lortzen da jendeak ikustea formazioa inportantea dela; hau da, konturatzea animaliekin ibiltzen jakitea bakarrik ez dela nahikoa. Egiten duzun lan hori


MAPFRE
Oñati

Paritu kalea, 5
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 65

ARRI *Orain Oñatiarron zerbitzura!*
Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

ondo ala gaizki egiten ari zaren jakin behar da, eta horretarako behar den oinarri zientifikoa ematen du eskolak; gauzen zergatia azaltzen du.

Posible al da artzantzatik bizitzea modu duin batean?

Posible da, bai, kontuan hartuz langintza honetan helburu garrantzitsuena ez dela dirua, pertsona gehienak bokaziodunak direlako, animaliak eta naturarekin harremanetan bizitzea maite dutenak.

Baina, jakina, ekonomia minimo bat ere beharrezko da, eta jartzen badugu 1.000€-ko soldatan duintasunaren maila, 180 bat buruko artalde batekin, (ardi bakoitzak 120 litro produzitzen duena) atera daiteke soldata hori gazta eginez eta behar bezala (17-18€-tan) salduz.

Egia da, bestalde, normalean esplotazio familiarrak izaten direla, eta beti egoten direla gurasoak edo osabaren bat esku bat musutruk ematen dutenak, eta hori ere oso inportantea da, oso zaila baita pertsona bakar batek esplotazioa behar bezala eramatea.

Gaztagintza da, gaur egun, bizimodua ateratzeko aukera bakarra?

Garbi dagoena da haragiaren kontsumoa asko jeitsi dela. Orain dela hamar urte 3,7 kilo arkume kontsumitzen ziren pertsonako urtean, eta gaur egun 2,4 kilo. Eta, gainera, arkumearen prezioa orain dela 40 urtekoaren parean edo pittin bat beherago dago. Espainia mailan 5 milioi ardi gutxiago daude haragitarako orain dela hamar urte baino.

“Unibertsitatearekin hitz egiten ari gara, artzantza 3 edo 4 urteko karrera izan dadin etorkizunean”

» 19 ikasturte bete ditu Gomiztegiako Artzain Eskolak, eta bere funtzioa betetzen ari dela uste du Batisek. “Uste dut erreferentzia bihurtu dela sektorearentzat. Hasieratik esan genuen berrikuntzarik gabe ez zegoela etorkizunik, eta uste dut paper inportantea betetzen ari dela eskola, artzantza tradizioaren aktuazlizazio prozesuan”.

Etorkizunera begira berriz, erakundeen arteko lankidetzak sustatu nahi luke Batisek. “Artzantzaren ahulezia nagusia da bakarka jardun izan duela beti. Beraz, gure erronka nagusia da komunitatea eratzea inguruko erakundeekin, unibertsitatearekin, kontsumitzaileekin... Eta ari gara bidea jorratzen. Adibidez harremanetan gaude Eskoriatzako fakultatearekin eta, behar bada, etorkizunean artzantza 3-4 urteko karrera izatera pasa liteke, 6 hilabeteko zikloa izan ordez”.



Beraz, esnea kalitatezko produktuan transformatuzetik etorriko da bideragarritasuna, baina Idiazabal gaztara mugatu barik. Ardi esnearekin produktu desberdin ugari presta daitezke: gazta freskoa, jogurta, gaztanbera, gazta urdinak, laktikoak... Gaur egungo gizarteak eskatzen dituen produktuak dira eta horiei egoki erantzuten asmatu behar dugu.

Laguntzak ba al daude?

GazteNEK (www.gaztenek.net) izeneko programa dago. Oso interesgarria da. Aholkularitza profesionala eskaintzen die proiektua bideratu edo indartu nahi duten gazteei. Bestalde, laguntza ekonomikoak ere badaude; aktibitatea sortzen laguntzeko 60.000 euroko laguntzak daude 41 urtetik beherakoentzat, eta azpiegiturak berritu edo produktu berriak merkaturatzeko laguntzak ere badaude, %40rainokoak.

**BISITAK
GOMIZTEGIN
URTEAN
IA 4.000
PERTSONA
(IKASTETXEAK,
JUBILATUAK,
ELKARTEAK...)
ETORTZEN DIRA
GOMIZTEGIRA.
ARTZANTZAREN
GARRANTZIA
AZALTZEN
DIEGU ETA, BIDE
BATEZ, GURE
PRODUKTUA
SALTZEKO ERE
BALIO DIGU**



Azkenaldian esplotazio berriak ikusten ari gara. Ba al dago oraindik tokirik merkatuan artzain berrientzat?

Aktibitatea ber-orientatzen ari diren esplotazioak direla uste dut. Produktzioa ez da gehitu; duela bost urte 1,4 milioi kilo Idiazabal produzitzen ziren, eta gaur egun 1,2 milioi. Aktibitatea galtzen ari da oraindik, sortu baino gehiago. Beraz, bada go, bai, lekua merkatuan. Baina inportantea litzateke produktua dibertsifikatzea, gaztara mugatu barik.

Formazioa ez ezik, bisitak ere antolatzen dituzte Gomiztegin. Zer nolako erantzuna dute?

Ona. Urtean ia 4.000 pertsona etortzen zaizkigu: ikastetxeak, jubilatutak, elkarteak, partikularrak... Artzantza zer den, eta paisaiaren mantenuan nahiz patrimonio alimentarioan duen papera azaltzen diegu. Eta bide batez gure produktuak saltzeko ere balio digu. ■

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 onati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
LIMITADA S.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 - lin.obarsola@gmail.com
www.egur-lan.es

Emakume erresistente eta errepresaliatuak omenduko dituzte

Edurne Galarza oñatiarra izango da omenduetako bat. Apirilaren 24an izango da ekitaldia, Elgetan.

‘Intxorta 1937’ Kultur Elarteak antolatuta ‘Erresistentzia Eguna’ ospatuko da apirilaren 24an Elgetan, eta aurten emakumeengan jarriko dute fokua, gerra zibilean borrokatu zutenak, eta fusilatuak edo errepresaliatuak izan ziren emakumeak omentzeko. Euskal Herri osoko 35 bat emakume —horietako 18 bizirik daude oraindik— omenduko ditu ‘Intxorta 1937’ elkarteak, tartean Edurne Galarza oñatiarra.

Urtero Elgetan ospatzen den ‘Erresistentzia Egunean —aurten laugarren edizioa du—, frankisten aurkako erresistentzian sinbolo bihurtu den Intxortako frontea gogoratzen da. Aurtengoan ere bertan izan ziren borroken antzespina edo errekreazioa egingo da Intxortako Atean (11:30), 140 bat figuranteren parte hartzearekin, eta ondoren omenaldia egingo da Elgetako plazan (13:00).

Iaz, Intxortako lubakietan borrokatu ziren gudari eta milizianoak omendu zituzten —Regino Biain oñatiarra tartean— eta aurten emakume erresistente eta errepresaliatuak gogoratuko dituzte.



Intxortan izan ziren borroken errekreazioa egingo da aurten ere apirilaren 24an (11:30) Intxortako Atean, 140 figuranteren parte hartzearekin. Ondoren (13:00) emakumeei omenaldia Elgetako plazan

EDURNE GALARZA / 1914-2006



Frontean edo lehen lerroko borrokaldietan parte hartu ez bazuten ere, ugari izan ziren frankisten errepresioa jasan behar izan zuten emakumeak Oñatin, ideologiagatik edo beraien familiak zigortzeko helburu soilarekin.

Edurne Galarza izan zen horietako bat. Arabako Domaikia herriko maistra zen atxilotu zutenean. “Abertzale amorratua” izatea egotzi zioten *Gerrako garrak Oñatin* (Gogoratu Guran Taldea, 2011) liburuan irakur daitekeenez. Emakumeen Abertzale Batzako kide zen, eta herriko neskatilei asteburuetan euskal dantzak eta antzerkia irakasten jarduteagatik bi urteko espetxe zigorra ezarri zioten.

Gasteizen pare bat hilabetez preso egon ostean, aske utzi zuten beste preso nazional batzuen truke, baina berriro atxilotu eta Donostiara eraman zuten preso, Ondarretara aurrena, eta Prim kaleko San José asilora (emakumezkoentzako presondegia) gero. Bertan zeuden haurren maistra lanetan jardun zuen.

Kartzelatik irten zenean debekatuta zuten hurrengo bost urteetan euskal probintzietan lan egitea, eta Segoviara joan zen. Zortzi urte eman zituen Fuente el Olmo herrian, eta 1947an itzuli zen.

Edurne bezalaxe, bere aita Basilio, ahizpa Arantxa, eta Joxe Mari eta Jon anaiak ere atxilotuta egon ziren. Basilio medikua zen Oñatin, eta abertzalea. Batzokiko presidente izana. Etxera joan zitzaizkion bila. Ondarretan epaitu eta hasieran heriotza zigorra ezarri zioten, baina gero 30 urteko gartzela zigorrean geratu zen. Galiziako San Simón irlako gartzela gogorrean egon zen preso.

Joxe Mari eta Jon anaiak frontera joanak ziren, baina laister atxilotu zituzten. Joxe Mari Puerto de Santa Marian egon zen preso, eta Jon erreketean alde borrokatzera behartu zuten. Edurneren ahizpa, Arantxa, aitarekin batera atxilotu zuten, etxean, Batzokian parte hartze aktiboa zuelako neskatilei dantzak eta antzerkia irakasten. Etxera bidali zuten ilea larru-arras moztuta, eta manifestazioetan lehen lerroan parte hartzera derrigortu zuten.

HARALD LINDER

ETXEETAN ENA GUZTIENTAN KONPONKETAK

PERSIANAK, LARRIAK, ENA FEDIANTEAK, ANAKAK, PINTURA LANAK...

DISKONKORTAMEN ETIA MONTATZALEA

ETXERIKOAK, BARRIOAK, HERRI-ALDIAK, GORRUKA

HEGALDIA 12.000 €tik - 30000 €RAKI - OPIKIDIA

695 70 91 04 - 943 04 47 77

KL Katealegaiak lantegi berria inauguratu du Oñatin

Gutxitasunen bat duten 50 pertsonak lan egiten dute bertan

Elbarritasunen bat duten pertsonak lan munduan txertatzeko helburua duen KL Katealegaia elkarteak 2.000m²-ko lantegi berria inauguratu du Goribar auzoan, 1,2 milioi euroko inbertsioa eginda.

KL Katealegaiak 35 bat urteko ibilbidea du Oñatin (*Behar Zana* izan zen bere garaian). Orain arte udalak Berezaio industrialdean utzitako pabilioian burutu du bere jarduna, eta orain, lantegi berriak bultzada sendoa emango dio proiektuari; "lan baldintzak eta produkzioa hobetzeaz gain, negozio aukera berriak bilatu eta lanpostuak sortzen jarraitzeko aukera emango digu" adierazi zuen KLko presidente Pablo Nuñezek.

KL Katealegaiak 12 lantegi eta 800dik gora langile ditu gaur egun Gipuzkoan. Langileen %96k gutxitasunen bat dute, eta herenak desgaitasun larria du.

Irabazi asmorik gabeko lan



2.000m² ditu Goribar auzoko lantegi berriak. Bertan diharduten 53 langileetako bat da Lurdes Ruiz oñatiarra



elkartea da Katealegaia. Partizipazioen %70 langileen esku dago, eta gainerako %30 erakunde ezberdinen (Gipuzkoako Foru Aldundia, Ilunion-ONCE, eta Gureak) esku dade. Bere helburu nagusia, esan bezala, desgaitasunen ondorioz gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortu eta hauen integrazioan laguntzea da.

Ildo horretan, Mikel Biain alkateak adierazi zuen ekonomia sozialeko enpresa eredugarri bat dela, eta halako enpresak beharrezkoak direla, erakundeek eta bestelako enpresek desgaituen kolektiboarekiko dituzten obligazioak betetzen ez dituzten bitartean. Ildo berean, Gizarte Politikako diputatu Maite Peñak azpimarratu zuen pertsonak erdigunean jartzen dituen eredia sustatzen duela Katealegaiak, eta oso inportantea dela, azken batean lanaren eskutik datorrelako pertsonen duintasuna eta inklusioa.

KL Katealegaia-Oñatin diharduten 53 langileak inguruko herrietakoak dira, tartean lau oñatiar, eta Polmetasa, Tesa eta Ulma bezalako enpresentzako lanak (automozioiko piezen kalitaterako kontrola, sarraillak, mekanizatuak, muntaia elektronikoak...) egiten dituzte.

Oineko tratamendu osoa

KAILLIAK **DNDDOAK** **AZAZKALAK**

PAPILOMAK **GOGORGUNEAK**

Neurrira egindako silikonak

Oineko miaketa, plantilak

Podóloga

Marta Frances Barbero
Colegiada Nº 1138090334

644 136 419

Kale Zaharra Nº 5 beh. esk. OÑATI

martafrancespodologa@gmail.com

Namche bazaretik Thyangbotxe
monastegirako bidea, 3.500m.
(Argk.: Mendiak eta Herriak)

Elkartasun trekkina prest

Nepal Lagunduz taldeak antolatuta, irailaren 23tik urriaren 18ra egingo da Himalaiako trekkina Mendiak eta Herriak-en gidaritzapean

Iazko maiatzeko lurrikarek eragindako kalteei aurre egiten laguntzeko Oñatin eratu zen Nepal Lagunduz taldea eta 'Mendiak eta Herriak' mendigidari elkarteak antolatzen ari diren elkartasun trekkina prest dago.

Guztira 24 eguneko bidaia izango da, eta 18 eguneko trekkina egingo da Everest inguruetan, bidez bide eta herriz herri. Bidaia bertikala izango da *Jiri* herrian (800 m.) abiatu eta Everesteko behe kanpalekuraino (5.450m.). Kontraste ederrez betetako bidaia: beheko aldean, trekkina hasieran, arroz landaketak, platanu zuhaitzak eta bufaloak ikusteko aukera egongo da, *Gurung*, *Limbu* eta *Rai* etniak bizi diren herrietan, beraien hizkuntza, erlijio hinduista eta kultura propioarekin. Goiko eremuetan beriz, Tibet jatorria duten *Tamang* eta *Sherpa* herri budistak ezagutzeko aukera egongo da.

Gainera, ibilbidean zehar, *Chaurikharka* herria (2.400m) Oñatitik bidalitako diruarekin zaharberritu dituzten bi etxeak ikusteko aukera egongo da. Baita ere *Namche Bazar* (3.440m) *Sherpa* herriaren herri-burua eta *Tyangboche* monastegi budista (3.867m). Urriaren 8an Kala Patatara (5.545m) iritsiko dira; Everest (*Sagarmatha* nepaleraz eta *Chomolungma* sherpa hizkuntzan) aurrean dagoen mendi muinoa da, eta handik Pumori, Nuptse, Lhotse eta Makaluko bista zoragarriez gozatzeko aukera egongo da.



Eskumatik ezkerre: *Pemba Tsering* gure *sherpa*, alabatxoa *Pasang*, emaztea *Droma* eta lagun bat.

**Jiri herritik (800m)
Everesteko behe kanpalekura
(5450m) izango da
18 eguneko trekkina.
Tartean Oñatitik bidalitako
diruarekin zaharberritu
dituzten bi etxebizitzak
ikusteko aukera egongo da**
www.mendiaketaherriak.eus



• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zahaiztza, 25 • Tel: 943 71 63 60

www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zahaiztza, 25 • Tel: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 Ierakusketa



GARAI BERRIETARA
EGOKITUZ...

Oñatien zerbitzura



1993



2016



1989

...GURE INSTALAKUNTZA GUZTIAK
ERABERRITU DITUGU




Berezo auzoa, 5
Tel.: 943 78 25 92
info@amets.eus

www.amets.eus
WEBGUNE BERRIA!



ELIKADURA BURUJABETZARI buruzko jardunaldiak

Oñatiko ORTUZABALA Kontsumo Taldearen eskutik, 'Elikadura Burujabetza'ri buruzko hausnarketa egiteko aukera izango dugu datozen egunetan, gaian adituak diren hizlarien laguntzarekin. Gaur egungo kontsumo eredua (elikagaien produkzioan eta merkaturatzean ematen diren monopolioak...) aztertu, eta horri buelta eman eta elikadura burujabetzarantz urratsak emateko proposatzen diren alternatibak jorratuko dira, besteak beste. Paul Nicholson (EHNE, Via Campesina) aktibista, Hego Amerikako nekazariekin bi urtez bizi izan den Esti Redondo, *Basberri* elkarteko ordezkariak eta '*Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian*' dokumentalaren egileak izango dira gure artean. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



EGITARAUA

APIRILAK 12, kultur etxean, 19:00
Hitzaldia: 'Elikadura burujabetza'
Hizlaria: Paul Nicholson

APIRILAK 15, kultur etxean, 18:30
Hitzaldi-tailerra: 'Elikadura burujabetza eta ekonomia feminista: elkar-elikatzea'
Hizlaria: Esti Redondo

APIRILAK 19, kultur etxean, 19:00
Dokumentala: 'Bide berriak' eta solasaldia egileekin.



APIRILAK 22, kultur etxean, 19:00
Hitzaldia: 'Proiektu agroekologikoak: ideien lurreratzea'
Hizlariak: Aintzira Oinederra eta Mirene Begiristain

NATUR ESKOLAREN ohar eta deialdiak

LEHIAKETAREN IRABAZLEA

Ingurumen Jardunaldien baitan 'Txantxikuak, lupuak eta ugaatxuak, anfibioen sekretuak' erakusketa antolatu zuen Natur Eskolak kultur etxean, eta bertan lehiaketa-jolas bat ere prestatu zuten, mimetismoa eta kamuflajea azaltzen zen atalean. Orbel artean kamuflatuta zegoen igel baten kokapena asmatu behar zen. Danera 104 pertsonen parte hartu zuten eta asmatzaileen artean **Arantzazu Regueiro** izan da saritua. Penintsulako anfibioei buruzko gida bat jasoko du opari.

AÑANAKO GATZAGARA IRTEERA ETA ALOÑAKO ZUHAITZ EGUNA

Eguraldi txarra zela eta, martxorako iragarrita zeuden bi ekintza atzeratu egin behar izan ditu Natur Eskolak. Hauek dira data berriak: 'Nerbioi-Añanako Gatzaga, diapiro aberatsa' irteera **apirilaren 24an**, igandea, izango da. Izena emateko 943716404 telefonora deitu behar da. Bestalde, Aloñako Lagunak taldearekin burutuko den zuhaitz eguna **apirilaren 10ean** izango da. Hitzordua Unaimendin, goizeko 9:30etan.

BIDEBARRIETAN LANDATUTAKOAK HAGINAK DIRA, EZ PINUAK

Otsailaren 28an, herri barruko berdeguneetan zuhaitz eguna antolatu zuen Natur Eskolak. Aukeratutako tokia, udalaren oniritziarekin, Bidebarrieta etxaldea eta bariantearen bitarteko ingurunea izan zen. Bertan 40 hagin landatu zituzten, eta auzotar batzuk beraien kezka azaldu dituzte landatutakoak pinuak zirela pentsatu baitzuten. Izan ere, pinuak izanez gero asko hazi eta auzotarren ikuspegia murriztuko lukete. Kezka honen aurrean zera azaldu nahi dute Natur Eskolakoek: haginak hazkuntza oso moteleko zuhaixkak dira eta metro gutxi batzuk hazten dira (gehienez ere 5-7m). Beraz, lasaitasun mezua zabaldu nahi dute. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiete zuhaitz egunean parte hartu zuten herritarrei.



Iñaki Ugartek atera zuen Natur Eskolak antolatutako lehiaketa-jolasean saritua atera zen txartela



Aizkorri-Aratz natur parkea ezagutzeko MENDI IRTEERAK-2016

» **Parketxeak eta Arantzazuko Adiskideen elkarteak antolatuta**

Zazpigarren urtez jarraian Aizkorri-Aratz natur parkea hobeto ezagutzeko mendi irteera sorta programatu dute Parketxeak eta Arantzazuko Adiskideen elkarteak. Natur parkearen eremu zabala ezagutzeaz gain, ingurune eder honetan ikus daitezkeen antzinako elementu kulturalak interpretatzeko aukera izango dugu ibilaldi hauen bidez. Ibilaldi gidatuak izaten dira, eta gai ezberdinen inguruko adituen azalpenak entzuteko aukera egoten da.

Zailtasun teknikorik gabeko irteerak izaten dira, 4-5 ordutan egiteko modukoak. Helduek 3€ ordaindu behar dute, eta hurrek (-12 urte) 2€. Irteera bakoitzari buruzko informazio zehatzagoa Arantzazuko parketxean: arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net / 943782894 / www.gipuzkoamendizmendi.net

Lehenengo irteeran (apirilak 10) Arantzazuko aparkalekutik ikusten diren Bellostegi eta Erbizkun mendiak inguratuta, Iturrigorri basoa eta Arriona nahiz Bellotzako sarioiak ikusi eta ezagutzeko aukera egongo da (7km.)

EGITARAUA

> **APIRILAK 10**

'Iturrigorri-Bellotza'.

Ezkutuko bidea. Arantzazuko kondairak eta sinesmenak.

> **MAIATZAK 15**

'Jaturabe-Aitzgain-Orkatzategi-Aitzulo'.

Uraren bidea.

> **EKAINAK 26**

'Arantzazu-Urbia-Pin Pil-Oltza'.

Oltzako sarioiak

> **UZTAILAK 16**

'Arantzazu-Aloña'.

Aloña ilunabarrean

> **IRAILAK 18**

'Oñati-Olate-Jaturabe-Arantzazu'.

Eromesbidea

> **URRIAK 16**

'Andraitz'.

Unibertso karstikoa

SAN MARTIN GUNEAN

**GARAJEAK eta
ETXEBIZITZAK**

SALGAI

PROMOZIO BERRIA 2,3 eta 4 logela 169.235€ -tik !!



MOJASORO S.L. | Informazioa: 689 420 761 | Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net

UDALEKO BATZORDEAK



Gazteria

Nerea Zubia (EH Bildu), Kepa Zelaia (EH Bildu, batzordeko burua), Ion Lopez (teknikaria) Ritxar Fernandez (EAJ) eta Marijo Etxegoien (EAJ)

Agintaldia hastearekin batera Gaztelekuan lan egiteko eredu aldatu zuen Udalak, aisialdi hezitzailea sustatu nahian. Lehen hilabete hauetako esperientziaz eta esku artean dituzten bestelako programa eta egitasmoez hitz egin dugu Kepa Zelaia 'Haurrak eta Gazteria' batzordeko buruarekin.

Zortzi bat hilabete badira Gaztelekuan lan egiteko eredu aldatu zenutenetik. Zein da balorazioa?

Debako *Zehar* elkarteak hartu du bere gain Gaztelekuaren ardura eta hezitzaileak oñatiarrak dira. Balorazioa oso ona da momentuz, berdintasuna, integrazioa edota euskara

jorratzea helburu duten zeharlerroak garatzen ari dira. Horretaz gain, haur eta nerabeen inplikazioa eta parte-hartzea bilatzen da lana egiteko era berri honetan. Aisialdi hezitzailea lortzeari begira lan egitea da helburua, eta horretarako Aldundiak jarritako Gaztematika-ren bideari jarraitzea ezinbesteko ikusten dugu; hortik datoz Arazerixan, Kili-bero, Arimen gaua... bezalako proiektuak.

Otsaila eta martxoan zehar burutu da DBHko gazteei zuzendutako 'Arazarixan!' lehiaketa berria. Nola joan da? Oso ondo; 160 partaide aritu

DATUA

892.149
euroko (%4,5)
aurrekontua du
Gazteriak

dira 30 taldetan banatuta, neska gehixeago egon direlarik. Herri Kurrikuluma eratzeko bidean gaztetxoek herriko kontu, leku eta istorioez gehiago ikasteko aukera izan dute eta hori garrantzitsua da ondare historikoa zaindu eta transmisioa bermatzeko.

Uztaileko Udaleku Irekiak antolatzen ere hasiak zarete. Ba al da berritasunik aurten? Adin aldaketan dago aurtengo berritasuna, LH-5 eta LH-6 mailakoek ere izena emateko aukera izango baitute.

Izena emateko modua ere errazagoa izan da aurten, *online* egiteko aukera egon

baita, besteak beste. Guztira, 403 neska-mutikok eman dute izena, inoiz baino gehiago.

Begiraleak kontratatzeko epea apirilaren 4tik 15era zabalduko dugu, eta hemen azpimarratu behar da Udalak zuzeneko 40 kontratu egiten dituela.

Arte Udalekuak ere izango al dira aurten?

Iada bost urte dira udaleku hauek egiten direla, erantzun oso onarekin. 11 eta 15 urte arteko nerabeeri zuzenduta daude. Aurten ere Arte Ederretako titulua duten bi begirale kontratatuko ditugu eta beraiekin definituko dugu ekintza programa. Ekainaren 27tik uztailearen 22ra egingo dira. Maiatza bukaeran zabalduko dugu izen-emate epea.

Ludoteka Ibiltaria ere jarri duzue martxan. Zein helburrekin?

“Gaztelekuan dabilzan nerabeen inplikazioa gero eta handiagoa izan dadin lanean ari gara. Ekintzen antolaketan eta ardurak hartzen ohitu daitezten nahi dugu, aisialdi eredu hezitzailea bultzatuz



KEPA ZELAIA | Gazteria batzordeburua



Gazteen emantzipaziorako dirulaguntzetan 25 eskaera izan genituen iaz eta 21 onartu ziren. Guztira 19.000 euro banatu zituen Udalak

Ludoteka zerbitzua kalera eta auzoetara zabaltzea, eta herritarrei gerturatzea da helburua. Hurrengo saioa larunbat honetan (apirilak 9) izango da Portu plazan. Jostailuak sortu eta *slackline*-an aritzeko aukera egongo da. Gero, maiatzaren 7an, San Miel Txiki jaiekin bat eginez, Olaiturrin egingo da (Amets harrapakariak eta puzgarriak).

Gazte lokalak erregulatzeko prozesua burutu zen iaz. Zertan geratu da?

Ordenantza behin betiko onartu da eta, orain, urte bateko epea dago lokalak araudira egokitzeke. Obrak egiteko dirulaguntza partida bat zabaltzea ere aztertzen ari

gara, baina oraindik ez dugu erabakirik hartu.

Prozesu hori gehienbat Hirigintzatik bideratuko da eta guri dagokigu gazteengana gerturatzea edo lokalak sare-tzea bezalako lanak egitea.

Gazteen emantzipaziorako dirulaguntzak ematen hasi zineten iaz. Nolako erantzuna izan zuen deialdiak? (Aurten ba al da aldaketarik?)

25 eskaera egon ziren eta 21 onartu ziren, 19.000 euro inguru banatuz. Balorazio ona egin dugu, baina programa egonkortzea lortu behar dugu, gazteak gehiago parte hartze-ara animatu daitezen.

Aurten aldaketa bat egingo dugu, lehen bikote izatea nahi

gabe penalizatu egiten baitzen. Eskatzaile bakarrak 28.000 euroko diru sarrera muga bete behar zuen, eta bikoteak 35.000 eurokoa. Orain, eskatzaile bakoitzarentzat 28.000 eurokoa izango da muga.

Gazteen sorkuntza lana bultzatzeko dirulaguntzak ere ematen dituzue, ezta?

Bi laguntza lerro daude. Alde batetik, sormena bere horretan lantzen duten taldeei zuzenduta dagoena; iaz 4 musika talderi eman zitzaieen laguntza. Bestetik, gazte eta familien ekintzak laguntzera dago zuzenduta; iaz bi taldek jaso zuten sostengua. Guztira 10.000 euro banatu ziren.

Gaztelekuan inbertsioren bat egiteko asmoa ere baduzue, ezta?

Azken urteetan urtero egin izan dira inbertsioak Gaztelekuan. Kuboan komunak ipini ziren, sotoko arrapala egokitu zen, iaz musika

ekipoa hobetu genuen, eta aurten eskenatokiko argi-fokoak aldatuko ditugu.

Langileen segurtasunari begirako neurri bat da batik bat, baina baita espektakulua eta efizientzia hobetze aldera eginikoa.

Gainerakoan, zein dira agintaldirako helburu edo egitasmoa nagusiak?

Azaldutako proiektu guztietan lanean jarraitzea, bidean daudenak gauzatu daitezen eta gainontzekoak hobetu eta egonkortzeko. Horretarako beharrezkoa izango da norabide berdinean lan egitea, Aldundiak jarritako Gaztematikaren bideari jarraitzea eta herrian etengabe aurrera-pausoak ematea.

Aipatzekoa da bestalde, egitasmo bat lantzen ari garela, haur eta nerabeek hurrengo urteko aurrekontuetan parte hartu ahal izan dezaten.



MARIJO ETXEGOIEN / EAJko ordezkaria Gazteria batzordean

40.000 euroko dirulaguntza lerro bat zabaltzea proposatu dugu gazte lokalak egokitzen laguntzeko

Iraillean Gaztelekua kudeatzeko eredu berria jarri zen abian. Zein da balorazioa?

EAJ alderdia 2005ean hasi zen herriko gazte eta nerabeen sustapen-eredua zehazten ('3-18 adinekoentzako aisialdi hezitzailea' izenburupean) eta hor daude gaur indarrean dagoen ereduaren oinarriak. Oraindik goiz da balorazioa egiteko, baina badirudi haur eta gazteek ondo hartu dutela eta pozik daudela.

Gazte lokalak erregulatzeko araudia onartu du Udalak. Zein da zuen balorazioa?

Ados gaude, gazteek lagunekin biltzeko erreferentziatzeko gune propioa bilatu eta topatu dute

gazte-lokaletan: lagun arteko bizikidetzak, ardura, aniztasuna, autogestioa, demokrazia, esperientzia... lantzeko toki bihurtu dira lokalak.

Hori horrela izanik, gazte-lokalen eta bizilagunen arteko bizikidetzak egokia izan dadin, beharrezkoa da alde guztien ahalegina: jabeena (lokalak zenbait baldintza bete behar ditu), gazteena (bizikidetzarako) eta bizilagunena. Araudi hori, hortaz, berme bat da bizilagunentzat, gazteentzat eta baita, neurri handi batean, gurasoentzat.

Lokalak araudira egokitzen laguntzeko dirulaguntza lerro bat zabaltzea proposa-

tu du EAJk. Zertan da?

2016ko udal aurrekontuetan 40.000€-ko laguntza lerroa propoastu du EAJk, izan ere, gazteek eta jabeek jakinarazi digute zailtasunak dituztela gazte-lokalekin jarraitzeko. Sortu diren eta sor litezkeen zailtasunak gainditu nahi dira, eta gazte-lokalen iraupena ahalbideratu. Ildo horretan, lokalak egokitze-lanak diruz lagundu nahi dira; besteak beste, segurtasuna bermatuko duten lanak egitea: estintoreak eta ate bereziak jarri... Azken finean, gure proposamenaren azken onuradunak gazteak dira.

Lanak egiteko ardura hartzen

duenarentzat zuzendu behar da laguntza-lerro hori, eta baldintzen araudia finkatu behar dugu: onuradun izateko irizpideak, gehiengo diru kopurua...

Gainerakoan, zein dira EAJren egitasmoak Gazterian?

Udaleku irekiak uztaileko azken astera luzatzea proposatzen dugu lana eta familia-bizitza kontziliatzeko helburuarekin. Epe luzera, gazteentzako ekintza-plana garatzea da erronka garrantzitsua; horretarako, ezinbestekoa da iritzi kritikoa osatuta duten gazte eragileen eta anitzen benetako parte hartzea bermatzea.

Eredu parte-hartzailea, euskalduna, berdintasunean oinarritua, anitza, demokratikoa, hezitzailea eta herritarra defendatu eta sustatuko dugu.

Kale garbiketa zerbitzua Udalak kudeatuko du urriaren 1etik aurrera

Udalak hamar langile kontratatuko ditu deialdi publiko bidez.

Gaur egun zerbitzua ematen duen FCC enpresaren kontratua eten eta urriaren 1etik aurrera kale garbiketa zerbitzua zuzenean Udalak berak kudeatzea onartu zuen udalbatzak martxoaren 3ko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz. Zerbitzua emateko, 10 langile kontratatuko ditu Udalak deialdi publiko bidez.

“Erabaki honen helburu nagusia kalitatezko zerbitzua ematea da” adierazi zuen Mikel Biain alkateak; “kale garbiketa bezalako oinarrizko zerbitzu bat modu eraginkor, zuzen eta kontrolatua ematea”. FCCk kontratua egindako ez-betetzeak (makineria ez berritzea, bajan dauden langileak ez ordezkatzeara...) jarraituak izan direla azaldu zuen Biainek, eta ez dela onargarria horrela ibili behar izatea.

Gainera, Udalak zuzenean kudeatuta, kale garbiketa zerbitzua ekonomikoki jasangarriagoa dela azaldu zuen alkateak, BEZA eta enpresaren mozkinak ebitatzen direlako. “Lantaldea indartuta (10 langile jardun osora -gaur egun 7 daude eta beste hiru %33ko dedikazioarekin-) eta bigarren erratz-makina bat erosita ere, gaur egun baino 6.000 euro merkeagoa aterako da zerbitzua”.

Udalak lehiaketa publiko bidez kontratatuko ditu kale garbiketa zerbitzuko hamar langileak. Ildo horretan, gaur egun FCCrentzat lanean diharduten langileak deialdi horretara ahalik eta baldintza onenetan aurkeztu ahal izateko malgutasunez jokatu dutela adierazi zuen alkateak, lege barruan beti ere, edozein herritarrek deialdira aurkezteko duen eskubidea urratu barik. Apirilean edo maiatzean jarriko da martxan hautaketa prozesua.

EAJ AURKA

EAJren udal taldea kale garbiketa zerbitzua publikatzearen aurka azaldu zen. “Zerbitzuaren kudeaketa zuzeneko edo zeharkakoa izateak ez du kalitatea bermatzen” adierazi zuen Miren Elgarresta bozeramaleak. “Denborak erakutsiko du zerbitzua hobea eta merkeagoa den, Udalak zuzenean kudeatuta”.

Gaur egun FCCrentzat lanean diharduten langileekiko arreta gutxi edukitzea egotzi zion EH Bilduri. “Langile hauen perfila ikusita, zail izango dute oposizio publikoan aurrera egitea, eta beraz, langile horien eta beraien atzean dauden familien etorkizuna kolokan daude”.

Horregatik, zerbitzua berriro lizitaziora ateratzea proposatu du EAJk, kalitate irizpide teknikoak eta lan baldintzak jasoko dituen baldintza plegu zorrotz batekin. “Modu horretan, kalitatezko zerbitzua ez ezik, gaur egungo langileen lanpostuak eta lan eskubideak bermatuko lirarteke”.



ZERBITZU BERRIA

Banaketa prozesuan dauden gurasoentzat

Krisi familiar batean egonda (banaketa edota dibortzio egoerak, familia eredu berriak, berrosatutako familiak, etab.), beren **seme-alaben inguruan orientazioa eta laguntza behar duten gurasoei** zuzendutako zerbitzua jarri dute abian eskualdeko udalek KIDETZA/AGIPASE (Euskadiko Guraso Bananduen Federazioa) elkartarekin batera.

Gurasoak orientatzea eta erantzukidetasunean gaitzea da helburua, seme-alabekin sor daitezkeen zailtasunetan laguntzeko eta gurasoen artean komunikazio positiboa errazteko, horrela haur-narketarako eta topaketarako guneak bermatuko direlako.

Gurasoekin banakako edo bikoteko saioak egingo dira, eta banaketa edota dibortzio egoeretan jarraitu beharreko hainbat ildo landuko dira, beti ere, beren seme-alaben ongizate emozionalaren mesedetan.

Zerbitzu berri hau Aretxabaletan (Iralabarri kalea, 13) eskainiko da, goizez edo arratsaldez, eta dohainik izango da. Txanda hartzeko **666 558 195** telefonora deitu behar da.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Oñati 17. bidea, esk. / Tel: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

“Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabillo bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu”.

Txantxiarekin jarraitzea erabaki du Udalak

Merkatariekin kontsulta egin ondoren, 2017ko ekainerarte jarraitzea adostu dute

Urte eta erdi igaro da Oñatin Txantxia zirkulazioan jarri zenetik, bertako merkataritza laguntzeko helburuarekin. Orain arteko ibilbidearen balorazioa egin berri dute Udalak eta proiektuan parte hartzen duten 91 establezimenduek, eta moneta sozialarekin aurrera jarraitzea erabaki dute 2017ko ekainaren 30era arte. Txantxiaren proiektura atxikita dauden 91 establezimenduetatik 60 jarraipenaren alde agertu dira.

ALDAKETAK

Txantxiaren erabilera areagotzeko asmoz, aldaketa batzuk ere onartu dituzte funtzionamenduan. Hala, orain arte 4 iraugitze data zeuden (hiruhilabete bakoitzeko bat), eta hemendik aurrera 2 bakarrik egongo dira: ekainaren 30ean bat, eta abenduaren



140.000 TXANTXI
jarri dira zirkulazioan
lehen urte eta erdian

31n bestea; hau da, sei hilabeteko balioa izango dute bileteek. Ekainean zehar eskuratzen diren txantxiak abendurarteko balioa izango dute, eta abenduan zehar eskuratzen direnek ekainera artekoa.

DATUAK

Lehenengo urte eta erdian 140.000 pasa txantxi jarri dira zirkulazioan (une honetan 50.000 daude), eta 2.900 euroko gizarte funtsa sortu da.

Gogoratu, Txantxia erabiltzeak onura ugari dituena; tokiko merkataritza txikiari laguntzeaz gain, erabiltzaileak alde aurretiko %5eko bonifikazioa jasotzen du tokiko moneta erosten duen momentuan bertan (100 euroren truke 105 txantxi).

Txantxiak udaletxeko sarreran eskura daitezke, astelehenetik ostiralera 10:00-14:00 eta 15:00-20:00.

Gazteen emantzipaziorako dirulaguntzetan aldaketa

Gazteek (18-30 urte) etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak ematen hasi zen iaz Udala. Eskatzailea bakarra bazen, urteko diru sarrera gordinak ezin ziren 28.000 eurotik gorakoak izan dirulaguntza eskuratu ahal izateko, eta bi eskatzaile edo gehiago baziren berriz, 35.000 eurotan zegoen muga, bikoteak penalizatzen zirelarik modu horretan. Orain aldatu egin da artikulua hori, eta hemendik aurrera, eskatzailea bat edo gehiago izan, gehienezko diru sarreraren muga 28.000 eurokoa izango da eskatzaile bakoitzeko.

35 urte arteko goi titulatuentzako HAZILAN programa jarri du abian Mankomunitateak

Lan esperientzia urria duten titulu kualifikatuak eta enpresak harremanetan jartzea da programaren helburua. Bi fase izango ditu: *Aktibatu* izeneko lehen fasean zeharkako kompetenziak landuko dira (80 ordu). *Praktikaldia* izeneko bigarren fasean titulatuak praktikak egingo dituzte enpresetan. Apirilaren 15a arteko epea dago izena emateko Mankomunitatean (www.debagoiena.eus).

Uda kanpainarako begiraleak kontratatzeke deialdia

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra egingo den uda kirol kanpainarako begiraleak kontratatzeke deialdia egin du udalak. Interesatuak apirilaren 15a baino lehen eman behar dute izena udal bulegoetan. 18 urte beteta edukitzea eta euskaraz ondo hitz egitea eskatzen da. Formazioa eta esperientzia baloratuko dira.

UDALEKU IREKIETARAKO BEGIRALEAK. Udaleku irekietan begirale lanak egin nahi dutenek apirilaren 15a baino lehen eman behar dute izena udaletxean.

ANE MERTZERIA

- Josteko zarak
- Lentzeria
- Umeon jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

UDALTZAINGOAREN OHARRA

Galdutako materiala ikusgai udaltzaingoa

lazko urtean zehar herritarrek kalean aurkitu eta udaltzaingora eramandako materiala (arropak, betaurrekoak, giltzak, telefonoak, diru poltsak...) apirilaren 18ra arte mantenduko dute bertan. Jabeak agertu ezean, arropak REMAR edo Hermansoloña elkartera eramango dituzte, sakeleko telefonoak deuseztu egingo dituzte, legeak hala aginduta, eta diru poltsak aurkitu zituztenei itzuliko dizkiete.



Udaltzaingan egongo da ikusgai materalia apirilaren 18ra arte

Udako ordutegia Arantzazuko autobus zerbitzuan

Apirilaren 3an udako ordutegia sartu zen indarrean Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzuan. Hala, aurrerantzean, igande eta jai egunetan goizeko 07:30etan abiatuko da lehen autobusa Oñatitik, eta hortik aurrera orduro, 18:30ak arte. (Arrikruzten geldiduna egingo dute 10:30, 15:30 eta 16:30etako zerbitzuek). Arantzazutik behera 08:00etan jeitsiko da lehen autobusa, eta hortik aurrera orduro, 19:00ak arte. Arrikruzten geldituko dira 13:15 eta 18:00etako zerbitzuak.

Unibertsitate iristeko arrapala egingo du Udalak

Sancti Spiritus unibertsitate zaharrera iristeko aukera bakarra eskailerak jeistea da gaur egun (atzeko atetik sartu ezean) eta, beraz, ingurune hori irisgarriagoa izan dadin, 1,20 m.-ko zabalera izango duen arrapala bat egokituko du Udalak postetxetik gertuen dagoen eskailera gunean. Ugarte eraikuntzak enpresak egingo ditu lanak 13.720 eurotan.

6.500 kilo material errefuxiatuei laguntzeko

Gerra eta gatazka egoeretatik ihesi dabiltzen errefuxiatuei laguntzeko asmoz Hotz-Oñati plataformak antolatutako elkartasun kanpaina 6.500 kilo material batu dituzte bi astetan. Seur fundazioaren bitartez Bartzelonara bidali da materiala, eta han Alhambra elkarte arduratuko da Atenasera bidali eta errefuxiatu eremu ezberdinetara banatzeaz. Hotz-Oñati elkarte sortu berriak eskerrak eman nahi dizkie modu batera edo bestera kanpainarekin bat egin duten herritar guztiei. Gogoratu, gainera, ekonomikoki lagundu nahi izanez gero, kontu korrante bat zabalik dagoela Euskadiko Kutxan.

Xabin Egaña gogoratzeko erakusketa

Xabin Egaña (1958-2006) artista oñatiarra hil zela hamar urte betetzen diren honetan, bere omenezko 'Gautxoriak' izeneko erakusketa dago ikusgai Gasteizko Zuloa aretoan maiatzaren 19ra arte. 2003 eta 2004an Gasteizko hainbat taberna, kontzertu eta jaietan teknika ezberdinez marraztutako erretratuak dira; bere lagunei eta bestelako gautxoriei egindakoak. Xabinek hainbat erakusketa egin zituen bere bizitzan zehar eta bi liburu ere argitaratu zituen. Maiatzerako haren obrari buruzko erakusketa prestatzen ari dira Oñatiko senide eta lagunak.



HARTU TRENA! Ekimena, Oñatin



SARE herri mugimenduak bultzatuta, giza eskubideen aldarrikapen ekimen nazionala abian jarri da: Giza eskubideen tren. Gizartearen esparru ezberdinetako pertsonak zein taldeak trenera erakarriz, bagoi berriak sortu eta tren bera mugiaraztea du helburu ekimenak. Oñatiko SARE herritar mugimenduk ere ez du tren hori galdu nahi, herriko ahalik eta sektore eta persona gehien mobilizatzea nahi baitugu euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde jarduteko.

Hori dela eta, bilera-solasgune sorta zabalera antolatu dugu zuekin partekatzeko trenaren ekimen berria eta baita zuen ekarpenak ere jasotzeko asmoz:

- **Apirilak 26**, asteartea (19:00-20:00)
- **Apirilak 27**, asteartea (19:00-20:00)
- **Apirilak 30**, zapatua (11:00-12:00)
- **Maiatzak 3**, asteartea (19:00-20:00)
- **Maiatzak 4**, asteazkena (19:00-20:00)

Bilera-solasgune guztiak ELTZIA gunean izango dira. Herritar guztiak zaudete gonbidatuta, saioak guztiz irekiak izango dira eta. Gogoak dituen edonork eman dezake izena honako helbide elektronikora mezua idatziz:

sareonati@gmail.com

Animatu zaitetze, aukeratu zuen eguna eta etorri tren hartzera!



‘ARRATOIAK’

antzerki musikatua taularatuko du Ganbara Txiki apirilaren 9an

Bi urtetik behin izaten den ‘Kantua Kalean’ jaia ospatuko da larunbatean (apirilak 9) Ganbara Kantu Eskolaren esutik. Hala, Ganbarako talde ezberdinetan (Txiki, Txikitxo, Tailerrak) eta Ikastetxeak Kantari ekimenean ari diren 200 bat neska-mutikok kantuz eta koreografia alaiez girotuko dituzte herriko kaleak eguerdiko 12:30etan, arraotoi mozorrotuta.

Izan ere, ‘Arratoiak’ izeneko musikala izango baita Kantua Kalean eguneko ikuskizun nagusia.

Ganbara Kantu Eskola eta Ikastetxeak Kantari programako 200 neska-mutikok parte hartuko dute KANTUA KALEAN jaialdian

Grimm anaien Hamelingo Txirularia ipuinean oinarritutako ikuskizuna da, eta plazako frontoian (eguraldia txarra bada kiroldegian) eskainiko dute bi saiotan: arratsaldeko 17:00etan eta 18:30etan. Txokolateixan eta www.ganbara.sacatuentrada.es atarian eskura daitezke sarrerak (7€).

Gainera, goiz partean ‘Arratzen Txanda’ jolasa ere egingo da Txanda Dendarien Elkartearekin batera. Gaztetxoek gazta zatiak aurkitu beharko dituzte herriko denda ezberdinetan, pistei jarraituz.



Ate irekiak

apirilak 13 (asteazkena) 18:00
maiatzak 21 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Meatronika Industrialak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

2016-2017
www.mondragon.edu/gmhz







Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Intxortako Erresistentzia Eguna (2015, 2016)

Amaia Erostarbe, EAJren zinegotzia Oñatiko udalean

Apirilaren 24a da Intxorta 1937 Kultur Elkarreak eta Elgetako Udalak antolatu ohi duten Intxortako Erresistentzia Eguna. Aurtengo ekitaldiak, bereziki, 1936ko uztailaren 18ko Altxamenduaren hurrengo egunetan eta hilabeteetan erresistentzian aritu ziren edo/eta errepresaliak jaso zituzten emakumei egingo zaie omenaldia. Emakume horien artean, Edurne Galarza Zulueta oñatiarra dago (1914-2006).

Omenaldi hori aitzakia ederra da Edurne emakumea, ama, andereñoa eta EAJren alderdikidea gogoan edukitzeko eta nabarmentzeko. Oñatiko alaba, garai hartan hain ohikoa zen sendi luzean jaio, hezi eta bizi izan zen: zazpi anai-arrebekin, eta bost seme-alaben ama izanda. Emakume gogotsua, langilea eta bizkorra izan zen, eta bene-benetako euskaltzalea gazte-gaztetatik. Abertzalea zen, eta oso gazterik afiliatu zen EAJ alderdian; hala, Oñatiko Batzokiko Emakume Abertzaleen Batzaren kide eraginkorra izan zen Gerra Zibilaren aurreko urteetan. Euskal dantzak irakasten ibili zen neskatilei, eta koroak eta antzezlanak zuzentzen ere bai: trebetasun aparta zeukan irakasteko, dantzatzeko, abesteko eta antzezteko.

Andereño ikasi zuen Donostian, eta lan-ibilbide luzea eta oparoa egin zuen Zuiako Domaika herrian hasi (Gorbeialdea, Araba) eta Antzuolara iritsi arte. Gerra Zibila bukatuta, zazpi urte bidali zuten Segoviako Fuente el Olmo de Fuentidueña herrira derri-

gortuta, debekatuta baitzuen Euskadin andereño-lanetan jardutea. Euskara irakasten ere ibili zen 70ko hamarkadan gau-eskolan Antzuolan, eta Antzuolako ikastola sortzeko eragileetarikoa bat ere izan zen. Ibilbide horretan, Javier Ormazabal senarra, seme-alabak eta Josefina Valiente emakume nafarra izan zituen alboan Edurnek.

Gogoratu behar da iazko Intxortako Erresistentzia Egunean (2015-04-16) Intxorta mendi inguruetako erasoaldi basatiaren aurka gogor borrokatu zuten zenbait miliziano eta gudari omendu zituztela, tartean Regino Biain Guridi Itxarkundia batailoiko gudaria (Oñati, 1916-). Edurne Galarza Zulueta eta Regino Biain Guridiri egingo diegu omenaldia Oñatiko Batzokian apirilaren 22an. Bejondeiela Oñatiko EAJ-PNVren bi gudari, gure herriko bi aitzindari!

Aske baina ez libre

Iosu Lizarralde Aiastui

Martxoan pasa da urte bat ihesi. Malde egin behar izan huenetik. Maite dituan etxekoak, lagunak eta herria atzean utziz, iparraldeko bideak urratuz, hegoaldeko bideak ahaztuz, gauaren eta txakurren erpin zorrotzak sumatuz, lur gordinean eta leku arrotzean babesa bilatuz.

Bakean utzi ez eta hegoak ebaki eta kaiolan sartu nahi izan hinduten. Eta irailean lortu zuten. Txori bezala hegoak ebaki eta kaiolan sartu nahi hinduten, baina Arrano bihurtua hirtzen jada. Kaiola hautsita aldegin zuen arranoa, aske hintzela sinestaz.

Aske agian bai, baina ez libre. Ezin baituk etxera itzuli, maite dituanen ondoan nahi beste egon, batez ere ia mendea duen aitaren ondoan, hire nahi eta gogo den bezala.

Besarkada bat Aitto!! Laster arte!!

Gu bagoaz eta zu?

Apirilaren 17an, Preso Politikoen Nazioarteko Eguna, manifestazio nazionala egingo da Bilbon, La Casilaltik irtenda, 12:00etan. Oñatitik autobusa egongo da bertara joateko. 10:00etan irtengo da postetxetik. Arranon eman daiteke izena. Animatu eta etorri!



7 emakume, 7 eredu

Martin Jauregialzo, lan taldearen izenean

Hau da martxoan zehar Oñatin ikusgai egon den Herakusketaren izenburua. Oñatiko emakumeen Curriculum Vitae ezagutzeko aukera izan dugu, adin, jatorri eta errealitate ezberdinetako emakumeen curriculuma. Hau guztia genero berdintasuna aldarrikatzeko eta gure artean bizi diren emakume guztien lana azpimarratzeko. Gure emakume hauek eta ordezkatzen dituztenak ez dira puntako zientzialariak, kirolari ospetsuak edota unibertsitateko erretoreak. Gure helburua, hain justu, bestelako bat izan da, komunikabideetan azaltzen ez diren emakume normalen eta arrunten ekarpena aintzat hartu nahi izan dugu.

Hezkuntza proiektu honetan askotariko diziplinak landu ditugu, generoa, publizitatea eta mikromatxismoa, komunikazioa, administrazio hizkera, itzulpengintza, gidolaritza eta argazkilaritza tailerra.

Hiru hilabetez gelako ohiko antolakuntza irauli eta gizarte eragile ezberdinen laguntzarekin berdintasunaren inguruan hausnartu eta publizitate kanpaina hau sortu dugu.

Proiektu anitza, horizontala, berdinen arteko elkarriketan oinarritutakoa. Horrenbeste aipatzen den Oñatiko Curriculum-ari ekarpen apala egin nahi izan diogu. Bizirik, taupadaka dagoen gizarte berri honen eraikuntza prozesuko partaide aktiboak izan nahi dugu, beste eragile batzuekin elkarlanean aritzeko eta gure herri nortasuna sendotzeko.



Eskerrik asko Setem GKE-ari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Elkar Heziko irakasleei, Oñatiko udalari. Eskerrak Asuncion Molinos sortzaileari, Ibon Urizari, Andoni Salamerori eta arlo artistiko zein teknikoia kudeatu duen Super Itziar Bastarrikari. Eskerrik asko euren laguntzagatik Kutxa, Elorza, Kimu, Txantxiku, Altuna, Juanitosa eta Mendizabal dendei. Eta bukatzeko mila esker eta bi muxu 7 emakume, 7 eredu aparta hauei, Maddi, Soumaya, Maria, Ana, Asun, Sara eta Felisari.

HILEKO IRUDIA

Argazkia: Alex Berasategi



Pistan absoluto mailako Espainiako txapelketan lehiatu berri da Yeray Varela oñatiarra aurrenekoz.

HERIOTZA

"Filosofatzea hiltzen ikastea eta berari izurik ez edukitzea da", zioen Michel Montaignek bere 'Entseiuak' liburuan. "Filosofatzea bizitzen ikastea eta ahal den ondoen eta egokien goxatzea da", dio Jose Saramagok, idazle portugaldarrak. Bi ikasketak loturik ditugu. Ez bata eta ez bestea ez dira ikasgai errazak.

"Zeri diozu beldur?" Egunkarietako elkarrizketetan sarritan egiten den galdera da. "Minari eta sufrimenduari", askok. "Lan ezari eta etorkizunari", besteek. "Gerrei". "Lurrikareti". "Neure eta besteen intolerantziari". "Senitartekoen eta norberaren heriotzari". Ezerezi" diotenak ere badaude.

Entzuna dugu sarritan "jaiotzari heriotza zor" esaera. Baita, Naturaren legea dela betiko isiltze, iluntze eta desagertze hori. Denok, gazte, heldu eta zahar kez-

Bittor Madina



katzen eta izutzen gara heriotzaren itzala geure inguruan somatzen dugunean. Edonork kolpe latza jasotzen du gaitz larri bat nagusitzen hasi zaiola jakiterakoan.

Momentuko gertaera denez, zergatik ikaratzen gara hainbeste heriotzaren aurrean? *Holbach* (1723-1789) filosofo eta idazle alemaniarrek bere 'Naturaren Sistema' liburu sakonean azalpen batzuk ematen ditu:

"Haur handi batzuk gara, umetxo txikitxoak bezala, gurasoak edo ezagunak maskararekin mozorroturik ikusten dituztenean beldurtzen diren haur txikien antzekoak. Haurrak iluntasunaren beldur diren arrazoi beragatik dira helduak heriotzaren beldur".

Mozorroa jantzita, txorimaloa umetxo batengana hurbiltzen bada, ze negar, oihu eta garraisi ateratzen duen amaren edo

aitaren lepoa indar guztiekin inguratuz. Ez dio begiratuko ere txorimaloari, eta hau aldendu arte ez du lasaitasunik izango.

"Nekez fidatzen gara ezagutzen ez dugun guztiaren aurrean; izan ere, bizi garenoi oso zail egiten zaigu jabetzea zer izan behar duen ez existitzeak".

Gurasoak, umetxo txorimaloarengandik lasaitzen saiatzen diren bezala, *Holbach*-ek pentsamendu lasaigarriak eskaintzen digu:

"Heriotzaren ondoren, akabo esnal-di ezatseginak; zure begiek ikusteari utziko diote eta zure belarriek entzuteari. Pentsatzeari, sentitzeari, gozatzeari eta sufritzeari uztea da hiltzea. Jada ez zara munduan gertatzen denaren partaide izango, eta zure ideiak zurekin joango dira..."

"Ez zinen ez ezer eta ez inor bizitzen hasi arte. Hil eta gero, jaio aurretiko egoerara itzuliko zara. Lehen zenak izateari uzten dio. Lehen ez, gero ere ez".



ERRESPETUAZ

Errespetua, noski, horixe da erakutsi didatena, eta jende azkar askok (politikariak, epaileak, irakasleak, gazteak, apaizak...) predikatzen dutena, nahiz eta, akotan, esandakoa ez bete. Errespetoaz hitz egiten dutenean, askok ez dakite noiz, non, norekin edo zeri zor zaion, eta horrek nahasmena sortzen dit.

Giza duintasunari zor zaion errespetuaz hitz egiten da. Oso ondo. Giza eskubideez hitz egiten dugunean, 3. artikuluko Bizitzarako Eskubideari egiten zaio erreferentzia, giza eskubideak horretara bakarrik mugatuko balira bezala. Baina gogoratu behar da, Giza Eskubideen Adierazpenak 30 artikulua dituela bere baitan, hirugarrena

Fernando Mendiguren



bezain inportanteak denak.

Gutxiengoek duten eskubidearekiko errespetuaz, eta pentsamendu ezberdinekiko errespetuaz hitz egiten da, baina beti anbiguotasunez, gure ikuspuntu edo interesen esparrura ekarri Errespetua.

Uste dut ahalegina egin beharko genukeela ERRESPETUAren printzipioaz ulertzen duguna argitzeko. Politikariak adurra dariela hitz egiten dute errespetuaz, baina modu desberdinean baloratzen dute, unearren eta egoeraren arabera.

Nire lau oinarri behar ditu ERRESPETUAK.

1. **Ez suposatatu.** Ez eman ezer jakintzat.

Zalantzak badituzu, interesatuekin argitu. Susmoak badituzu, galdetu... Suposatzeak gauzak asmatzea dakar.

2. **Dialektika.** Zure ahotik irteten dena zara zu. Beraz, zure hitzak ondratu. Izan zaitez koherentea esaten eta egiten duzunarekin.

3. **Positibismoa.** Egin beti ahal duzun eta dakizun bezain ondoen. Ez duzu sekula damurik izango.

4. **Pertsonala.** Ez hartu ezer pertsonalki. Ez irainik okerreana, ez mespretxurik okerreana. Norbaitek min egin nahi dizun neurri berean egingo dio min bere buruari. Baina arazoa berea izango da.

Ondorioz, errespetatu egin behar dugu, errespetatuak izan gaitezen. Geure burua errespetatzen ikasi behar dugu, geure egoera kontuan hartuz, horixe baita besteak errespetatzeko modu bakarra.

--- Arazerixan ---

Badira iada bi hilabete Arazerixan hitza entzuten hasi ginenetik eta beste horrenbeste pasa da Arazerixan ibiltzeari ekin genio-la, gure erara; umore onez eta giro bikainean, Oñatiko ohitura eta ondareari gazte ukitua ezarritz.

Izan ere, gazteok dugu gure ondarea ezagutzeko eta baita nola ez gure historia propioa eraikitzeko indarra eta ardura. Hone-la, Ginkanak irau duen 8 asteetan zehar jakin dugu, ezagutu dugu, sortu dugu, arakatu dugu... gure Oñatiren interpretazio bana-kakoa sortu dugu.

Ekinak hala ere, bere ahalegina ere eskatzen du, nola ez, eta izan ditugu horretan hainbat buruhauste eta putz!

Txokolateriak zer?? Ahozkerak ulertzeko arazoak!! Sorgin errekek beheara eta lapur-bideko lapurrak gora!!...Bestela ikusi gazte hauek kontatu digutena! (Youtube-en Arazerixanen kanalean; "Zer diote partehartzaileek Arazerixan! ginkanari buruz?")

Aste berriarekin bat, zalantzak, ilusio eta desilusioak, nekeak eta algarak piztu izan dira. Ez da izan erraza talde askorentzat, batzuetan pisutsu eta ardura iturri izan da, hala ere, gazte ekimenak nahiaren muga soilik duenez, azken festara begira gaude guztiak!! Aupa Oñatiko gazteria!! Bertso batean ongi azaldu duten gisan...

*Oso ondo pasatu
du arazerixan
prisaka ibili arren
nabi dugu sarixa
talde zelebretxua
ezin in barrixa
irabazliak urten-
go gara ixixa.*

Orain azkeneko festa geratzen zaigu. Aste hauetako, abentura eta kontakizunak bata besteari kontatzeko ueña. Egindakoa-gatik, berriz ere, barre algaraka lehertzeko eguna. Bertan ere, izango baita zer ikusi, zer entzun eta zer kontatu!! Martxoak 18, geuria!!



Jo Ta Ke!



Watxikawa



Ximaurrak

APIRILEAN...

[9] LUDOTEKAN: 3. Ludoteka Ibiltaria, Portuko plazoletan. Jostailuak sortuz eta Slack-line. **KUBOA**

ETA TOPALEKUA: Apirilaren bigarren hamabostaldian, KILIBERO, Sexualitatean murgiltzen hila-

betea. **[4-15]** Udaleku Irekietako Begiraleen izen ematea zabalik, oinarriak: www.oñati.eus **[4-12]**

Diputazioko Gazte Oporraldian eta Udalekuan izen-emateko epea zabalik. **[2] GAZTELE-**

KUAN: MCD eta Lokuria taldeen kontzertua, 22:30etan 5€. **[9] GAZTELEKUAN:** Gozategi talde-

aren kontzertua, 18:00etan 5€. **[23] GAZTELEKUAN:** Goldsprint.



Ane Erostarbe Zubikoako rokodromoan, ibilbidea irudikatzen.

ANE EROSTARBE | Eskalatzailerak

“Asko daukat oraindik ikasteko. Eskaladaz gozatzen jarraitu nahiko nuke etorkizunean”

Euskal Herriko Bloke txapelketa irabazi berri du eskalatzailerak, emakumezkoen 18 urtez azpiko kategorian

Ane Erostarbek (Oñati, 2000) bizitza erdia darama pareta batetik zintzilik. 8 urte zituela hasi zen eskalada mundua ezagutzen eta azkenaldian, aurrerapauso bat eman du bere prestakuntzan. Irailetik, Joxean Mulas eta Ruper Ayalaren esanetara ari da entrenatzen Aretxabaletako teknifikazio eskolan.

Azken hileetako lan saioak fruituak ematen hasi dira eta martxoaren 12az geroztik Euskal Herriko Bloke txapelketa da 18 urtez azpiko kategorian.

Noiz eta nola hasi zinen eskaladan?

Familian ez daukat eskaladan ibili den senitartekorik baina zortzi urte nituela Uda Kanpainan eskaladan izena ematea erabaki nuen. Asko gustatu zitzaidan eta udaro sartzen nintzen ikastaroan. Gerora, eskalada eskolan sartu nintzen eta, azkenaldian, nire kasa ibili naiz eskalatzen kiroldegiko rokodromoan eta Araotzen.

Orain baina aurrerapauso bat eman duzu ezta?

Bai, hori da. Aretxabaletako teknifikazio eskolan sartze-ko aukera eskaini zidaten irailean eta ordutik bertan ari naiz astean birritan Joxean Mulas eta Ruper Ayalaren esanetara. Oso maisu onak dira eta asko ari naiz ikasten. Aretxabaletara joaten ez naizen egunetan Oñatin egiten ditut saioak.

Duela aste batzuk, Euskal Herriko Bloke txapelketa irabazi zenuen Bilbon. Esperotako emaitza izan da?

Egia esan, ez. Hilabete gutxi daramatzat teknifikazio eskolan eta orain arte lehiatu ditudan txapelketa guztiak kalitatezko entrenamendu bezala hartu ditut.

Euskal Herriko txapelketan baina, oso sentsazio onak izan nituen. Guztira zortzi emakumezko lehiatu ginen 18 urtez azpiko kategorian, eta sailkapen fasean eta baita finalean ere bloke gehien osatu zuen eskalatzailerak izan nintzen.

Eskalada mundua ezagutzen ez duenarentzat, nolako da bloke txapelketa bat? Eskaladaren diziplina bat da blokea, eta bi modalitate ezberdinetan ezberdintzen da. Sokarekin egiten dena, eta sokarik gabe baina koltxonetarekin egiten dena.

Txapelketan, antolakuntzak markaturiko ibilbide bat egin beharra izaten dugu. Bide erdian, puntuaketa ematen dizun ‘bonus’ bat egoten delarik. Finalean adibidez, isolatuta egoten gara gela batean, eta lehiatzen hasi arte ez dugu ibilbidea ikus-



“8 urte nituela, Uda Kanpainari esker hasi nintzen eskalada ezagutzen”

“Asko ari naiz ikasten Aretxabaletako teknifikazio eskolan. Joxean Mulas eta Ruper Ayala maisu bikainak dira”

“Oñatin, harro egoteko instalakuntzak ditugu. Kiroldegia eta Araotz leku bikainak dira”

teko aukerarik. Bilbon adibidez 23 bloke egin genituen goizeko sailkatze fasean, eta finalean, beste lau bloke osatu behar izan genituen. Guztira bi orduko lana izan zen eta azkeneko, fisikoki zein psikologikoki, nekatuta amaitu nuen.

Etorkizunera begira, ze helburu dituzu?

Taldeakideak Espainiako txapelketak prestatzen dabilta burubelari. Baina nik, datorren urtera arte gutxienez, ez dut bertan parte hartuko. Orain entrenatzen jarraitu eta hemen inguruan dauden txapelketa ezberdinak egin ez, eskaladaz gozatzen jarraitu nahi dut.

Nola ikusten duzu Oñatiko eskalada?

Geroz eta zaletasun gehiago dago. Gainera, harro egoteko instalakuntzak ditugu. Kiroldegia eta Araotz leku bikainak baitira. Eskalada eskolak ere asko lagunduko du etorkizunera begira.



MAIATZEAN | Zubikoa kiroldegian

Emakumezkoen boxeoko jaialdia Oñatin

Indar gimnasioak otsailean abian jarri zuen boxeoko ikastaroak izan duen erantzuna ikusirik, emakumezkoen boxeoko jaialdi bat antolatuko du Lopabax taldeak, Oñatin. Udala eta bilatzen ari diren bestelako babesleen laguntzari esker, egun Euskal Herrian dauden borrokalari onentsuek ikusteko aukera izango da maiatzaren erdialdean, kiroldegiko kantxa nagusian.

Lopabax taldeak era honetako hainbat jaialdi antolatu ditu. Aurrez Soraluzen bi ekitaldi egin badira ere, 2016an Gipuzkoan jokatu den aurrenekoa izango da Oñatikoa. Guztira sei borrokalari ikusi ahal izango dira eta tartean, Ixa Rodriguez (Indar gimnasioko monitorea) egungo Espainiako txapeladuna zuzenean ikusteko aukera eskainiko digu jaialdiak.

Desfibrilagailuaren gaineko ikastaroa kiroldegian

Erreskate kardiakoa eta kanpo desfibrilagailuaren erabileraren gaineko formakuntza saioa antolatu dute Mankomunitateak eta Udalak, apirilaren 22rako. Bi orduko ikastaroa izango da (17:30-19:30) eta Zubikoa Kiroldegian bertan emango da.

Herritar orori zuzendutako formakuntza saioa izango da baina bereziki, jarduera fisikoan eta kirol arloan lan egiten duten monitorea, irakasle, eta entrenatzaileei deialdi berezia egin nahi zaie. Ikastaroa doanekoa izango da eta interesa duen orok, apirilaren 6tik 16ra bitartean eman beharko du izena Zubikoan bertan.

UDA KANPAINA

Uda Kanpainako kirol zerbitzuetan lana egiteko, monitorea kontratazioa zabaldu du Udalak. Interesatuak apirilaren 6tik 15era (biak barne) aurkeztu beharko dute dokumentazioa Udal erregistroan. Lehiaketaren araudi eta informazio guztia, www.oñati.eus atarian.

Bestalde, Udako kanpainako ekintzetako izen-ematea, zozketa bidez antolatuko da. Ikastetxeetan banatuko dira inskripzio-orriak eta apirilak 18 eta 19 (09:00-13:30 eta 15:00-19:00) eta apirilak 20ean (09:00-13:30) entregatu beharko dira kiroldegian.



> Mendi irteera BAZTANERA

Aloña Mendiko Mendi sailak apirilaren 17an. Izpeguitik abiatuta, Baigorritik datorren GR-10 hartuko dute betiere kresta jarraituz. Iparlara (1.049m.) heldu, eta Bidarrain amaituko dute. Guztira 14km. eta 750m.-ko desnibela izango du; 6 bat ordutan egitekoa. Ibilbidea ez du zailtasunik.

Irteera goizeko 7etan izango da. Izen-ematea, apirilaren 14ra arte, Aloña tabernan. Bazkideak 10€, ez bazkideak 13€ eta langabetuak 5€. Federatuta egon behar da.

> Aloñako XII. Igoera

Aloñako Igoerak XXI. ekitaldia beteko du maiatzaren 1ean. Duela aste batzutatik dortsal guztiak agortuta daude eta azken bi urtetako ibilbide luzea mantenduz, ikuskitasunik ez da faltako gure inguruko mendietan. Bestalde, duela bi urte izandako arrakasta ikusirik, antolakuntzak Buetraitzeko Igoera Bertikala berreskuratu du aurtengorako. Apirilaren 29an 22:00 izango da eta izen-ematea zabalik dago www.sailkapenak.com orrian.



Gazteen irakurle taldea sortzeko deialdia



► 13-15 urte arteko gazteen irakurle taldea sortzeko deialdia egin du Udal Liburutegiak ► Irakurtzeaz gain, *book trailer*-ak eta *book tube*-ak egiten ere ikasiko dute ► Apirilean zehar eman behar da izena

13-15 urteko gazteen irakurle talde bat sortzeko deialdia egin du udal liburutegiak. Bertako zuzendari Arantzazu Ibarondok eman dizkigu egitasmo berri honi buruzko azalpenak.

Zer dela eta gazteen irakurle talde bat?

Hutsune bat dagoelako adin tarte horretako gazteekin, udal liburutegiak antolatzen dituen ekintzetan. Antolatu izan ditugu ekintza batzuk (*Graphic Recording*, komikilariak...) baina gauza puntualak izaten dira. Konparazio bat eginez, ekintza gehiago antolatzen ditugu haurrentzat eta jende helduarentzat.

Eta hala, EAJk proposatuta eta EH Bilduren oniritziarekin, gazteen irakurketa taldea abian jartzeko diru-atal bat onartu zen 2016ko aurrekontuetan, eta hainbat aditurekin hitz egin ondoren, deialdia egitea erabaki dugu.

Ez da erraza era honetako talde bat sortzea, gazteek oso bete izaten dutelako agenda,

baina ahalegina egin nahi dugu. Gure inguruan behintzat ez dut horrelako talderik ezagutzen. Antolatzen dira, bai, tailer puntualak, baina gure asmoa da dinamika iraunkor bat sortzea, urtean zehar funtzionatuko duena. Beraz, erronka handia da guretzat.

Nola funtzionatuko du?

Gure proposamena da hiru astean behin saio bat egitea larunbat goizetan, 11:00etatik 13:00era. Esan bezala, astean zehar aktibitate asko izaten dituzte, eta horregatik pentsatu dugu larunbat goizetan hastea. Lehenengo saioa maiatzaren 14an izango litzateke.

Baina proposamen bat da, besterik gabe. Taldea osatzen denean, beraiek esango dute zein den ordutegi onena eta zein erritmo jarraitu nahi duten. Gu beraien beharretara moldatzen saiatuko gara.

Saioak larunbat goizetan egitea proposatzen dugu, baina gazteek beraiek esango dute zein den ordutegi eta erritmo egokia



Zer egingo dute irakurle taldean? Zein izango da dinamika?

Oso garbi daukagu ezin dela izan helduen irakurle taldeko dinamika bera; hau da, ez gara mugatuko liburua irakurri eta komentatzera. Saio ludikoak izan behar dute, eta gazteek ondo pasa behar dute. Hori garbi dago.

Beraz, liburuak irakurriko ditugu, bai, baina horretara mugatu barik, *Book Trailer*-ak eta *Book Tube*-ak egiten ere ikasiko dugu, besteak beste. Eta ondoren, sarean



ARANBURU ALTZARIAK
 Kale Zaharra, 21
 Kale Barria, 11
 Lizaur A., 7
 OÑATI
 Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIAK ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

S distira
 estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiako Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
 email/twitter: estetika.distira@gmail.com

konpartituko ditugu lan horiek. Beraz, liburu bakoitzarekin saio bat baino gehiago emango dugu.

Edukiei dagokienez, genero guztiak jorratu nahi ditugu: narratiba, poesia, komikia... Kalitatezko eta beraien intereseko irakurgaiak beti ere.

Lehenengo saioan poesia lantzea pentsatu dugu, baina oso modu ludikoan, 'Poesia xuxurlatuz' izeneko saio baten bidez.

Liburutegiko goiko solairuan gela bat girotzeko asmoa dugu adin horretako gazteak bertan gustora senti daitezten.

Nork gidatu edo dinamizatuko ditu saioak?

Kalabazan Kultur Ekimenak taldeko hiru neska izango dira dinamizatzaileak. Esperientzia dute gazte literaturaren arloan eta adituak dira, besteak beste, *book trailer*-ak egiten.

Nori gomendatzen diozu izena ematea?

Adin tarte horretako neska-mutil guztiei. Uste dut izena ematen dutenek jada ohitura izango dutela irakurtzeko, baina era honetako batek ikuspegi zabaltzen eta beste bide batzuk deskurbitzen laguntzen du, genero edo irakurgai mota konkretu batera mugatu barik.

Non eta noiz eman behar da izena?

Hemen, liburutegian, apirilean zehar. Interesa duten guztiek eman dezatela izena lasai, eta gero denon artean joango gara erabakiak hartzen.

'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina



Irakurzaletasuna sustatu eta euskarazko literatura ezagutzera emateko asmoz, 'IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU' ekimena jarri du abian Euskal Zaleen TOPAGUNEAK Euskal Herriko 50 herritan (tartean Oñati) udal liburutegiarekin eta herriko liburu dendekin elkarlanean.

Apirilaren 1ean hasi eta maiatzaren 31ra arte luzatuko da kanpaina. Bi hilabete horietan zehar udal liburutegian euskarazko edozein liburu maileguan eskatuz gero, irakurleak erosketa-txeke bat jasoko du liburu bat erosteko, eta lagun bati, senide bati edo norbere buruari oparitzeko.

Erosketa txartelak euskarazko edozein libururen prezioaren %35aren balioa izango du, eta ekainaren 11ra arte erabili ahal izango da, kanpaina parte hartzen duten liburu dendetan erabiltzeko.

Maiatzaren 31ra bitartean udal liburutegian euskarazko liburu bat maileguan hartzen duten irakurleek erosketa-txeke bat jasoko dute liburu bat erosteko

AZALERAKO IPUINAK

0-2 urte arteko haurrei eta hauen gurasei zuzendutako saioa egongo da apirilaren 7an (18:00) udal liburutegiko haurren txokoa. Literaturaren mundura hurbiltzeko saioa da, abesti, ipuin, hitz joko, poema eta masajeez baliatuz. Entzumena, ikusmena, usaimena, dastamena eta kontaktua erabiliz, giro lasai eta xamur batean burutuko da.



TERTULIXAN- IRAKURLE TALDEAK

Udal liburutegiko gaztelerazko Tertulixan taldeak apirilaren 13an (18:30) du hurrengo hitzordua. **Lola Lafónen** *La pequeña comunista que no sonreía nunca* liburua aztertuko dute. Euskarazko taldea hilaren 20an bilduko da eta **Joxe Azurmendiren** *Barkamena, kondena, tortura* liburua izango dute mintzagai.

OSTEGUN KONTALARIAK

Ohi bezala, hileko azken ostegunean (apirilak 28) haurrentzako ipuin kontaketa saioa egongo da udal liburutegian. Hile honetako 6-10 urtekoentzat izango da, Lur Usabiagaren eskutik, haurren liburutegian, 18:00etan. Aurreko astean gonbidapenak banatuko dira liburutegian bertan.





ARRIZABALAGA
Aroztegia

Bereazoa Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

BILKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKIN ENPOTRATU RIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larriño buzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Bilaketa egia: egurrezko lapetan

AGENDA

03 MARTXOA



ANTZERKIA

> **APIRILAK 17 / 17:00**



'MARTINA
ETA
PAPERZKO
BASOA'
Haurrei zu-
zendutako
antzerkia.

Martina paperezko neskatila da, jakin-nahia eta azkarra, kartoizko etxe batean bizi dena. Beti berandu dabil eskolako autobusa hartzeko, dena ahazten duelako: liburuak, motxila... Sarrera: 3,5€.

> **APIRILAK 12 / 17:00**

GURE ARBOLA ZAHARRA
Pake Leku elkarteak antolatuta duen 'Ongietorri udaberria' egitarauaren barruan, Gernikako jubilatuen antzerki emanaldia. Sarrera doan.

> **APIRILAK 17 / 18:30**

'PUTINEN GUARDASOLA'



Inazio Tolosa eta Ramon Agirrerren

ikuskituz berria, umorea eta musika uztartuz. Gaztetxean.

'LUCIO BIKAINA!' HAURRENTZAKO ARTE LANTEGIA

> **APIRILAK 9
ARANTZAZUKO
GANDIAGA TOPAGUNEAN**

6-11 urte arteko gaztetxoei zuzenduta. Sarrera: 3€. Maiatzaren 14an beste saio bat egingo da. Informazioa eta izen-ematea: 943716575 / 662181353 edo info@arantzazugandiaga.com

HITZALDIAK

> **APIRILAK 13 / 17:30**
ALIMENTACION Y SALUD
Hizlaria: Isabel Moreno.
Pake Leku elkartearen..

> **APIRILAK 21 / 18:00**
MARKEL IRIZAR



txirrindularia-
rekin solasal-
dia Udal
euskaltegian.
Herritar guztiei
irekia.

KONTZERTUAK

> **APIRILAK 8 / 22:00**
MIKEL 'IZAERA'RI OMENALDIA
Mikel 'Izaera' Ugarteren omenezkoa Gaztetxean.

> **APIRILAK 9 / 18:00**
'IÑIGO ETA BIYOK GOZATEGIZ'



Gozategieren kantuak eta atzean dauden istorio eta bizpenak. Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatuta, Gaztelekuan.

> **MARTXOAK 15 / 17:00**
SONES DE EXTREMADURA
Legazpiko Rondalla taldea eta Txantxiku ikastolako koralak Pake Leku elkartearen

> **APIRILAK 15 / 22:00**
HARTZAK BLUES BAND eta FLY SHIT
Antixena Gaztetxean.

> **APIRILAK 16 / 22:00**
MELMAK eta MEIDO
Antixena Gaztetxean.

> **APIRILAK 17 / 19:30**
JURGI EKIZA
Willis Drummond taldearen etenez baliatuta bakarka grabatu duen diskoa aurkeztuko du Pake tabernan.

> **APIRILAK 22 / 22:30**
COBRA eta ERASO



Metal kontzertua Antixena Gaztelekuan.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • ONATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



AUTOFORMAKUNTZA

> **APIRILAK 26 / 18:30**

KAPITALISMOA ETA BIOLENTZIA

Naomi Klein kazetariaren 'La doctrina del shock' liburuan oinarrituta. Hondamendi naturalak, krisi ekonomikoak, estatu kolpeak, eraso militarrik eta abarrak "tortura psikologiko masibo" bezala erabiltzen ditu kapitalismoak hierarkia sozialaren gainean dauden enpresarien mesederako, Klein-en tesiaren arabera. Antixena Gaztetxean.

IKASTAROAK

> **APIRILAK 16**

ARGAZKIGINTZA IKASTAROA
Plazaola argazki dendan, 09:00-13:00. Informazioa eta izen-ematea dendan edo plazaoladigital@gmail.com.

MAGIA IKUSKIZUNA

> **APIRILAK 24 / 19:30**

ANTXON MAGOA

Haur eta helduentzako, Pako tabernan

HELDUENTZAKO ANTZERKIA: 'THE GAG FATHER'

> **APIRILAK 29
SANTA ANA, 22:30**

Keinu bidezko umore antzerkian benetako artistak diren Yllana taldekoen lan berriaz gozatzeko aukera izango dugu apirilaren 29an. GaGster talde kupidagabe batek ikararuta dauka hiria, eta polizia talde burugabe bat aurre egiten saiatuko da, kostatuta ahala kostatuta, ustekabeko ondorioekin. "Zine beltza"ri eskainitako omenaldi bat da, umore beltzezko etengabeko egoerak bideratzen dituen. Bidaia dibertigarria, sen edo instintu baxuenetaraino, kritika sozialari uko egin barik. Sarrera: 10€ (www.bibe.me).

GOGOAN HARTZEKOAK ●●●●●●●●●●

KONTZERTUA (apirilak 9). Oñati Abesbatza eta Belchite herriko (Zaragoza) abesbatzen kontzertua Agustinoen elizan, 20:00.

ODOL ATERALDIA (apirilak 15). Txantxiku ikastolako aretoan, 17:30-19:30

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS PAILAZOAK

(apirilak 23). Txantxiku ikastolaren egunaren baitan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizuna kiroldegian.

Saio bikoitza: 16:30etan eta 18:30etan.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Filosofia liburua
"Tiempo y ser"



Komikia
"La casa. Crónica de una..."



CD Musika
"The art of Tango"



Gazte literatura
"Aintzaineren koadernoak"



Haur liburua
"Romeo y Julieta"



Aldizkaria
"Jakin.eus: herria, kultura, hizkuntza"

MERKATU TXIKIA

> **Duplexa** salgai erdialdean. 150m² baliagarri dituen etxea; 17,50m²ko garaje itxia eta 100m²ko lorategia. Prezioa: 310.000€. Deitu: 609074127 / 649887917

> **Atikoa** alokagai Portu kale auzoan: 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela. Deitu: 634466353 (16:00etatik aurrera).

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI

Tel.: 943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Apirilak 7, 15, 16, 17, 25 eta 26, eta maiatzak 4 eta 5.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Apirilak 8, 9, 10, 18, 19, 27 eta 28, eta maiatzak 6, 7 eta 8.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Apirilak 11, 12, 20, 21, 29 eta 30, eta maiatzak 1, 9 eta 10.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Apirilak 13, 14, 22, 23 eta 24, eta maiatzak 2 eta 3.



ZELAIM ONATI

(1) 70eur. sartzen

LIKIDAZIOA

- Altzariak
- Bainugeletarako osagarriak
- Argiztapenak
- Opariak
- Parket laminatuak

%70
DESCONTUAK

Enkaini Euzkidea 3 • Oñati • Tel.: 943 78 04 04 / 943 78 20 00



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

NUN JO ZEBEIN, BA, AZKENENGUA?



Aurtengo kintto egunian txikiteo formal jo giñuan egunari dagokixon moduan, eta sasue bateko herriko ultzegiñak eta erremendarixak itsasua zapaldu barik Tetuan**etik** Kubara faten ziran moduan, gu San Lorentzo goixenian dague Aldapa tabernan hasi eta Harripen akabo giñuan aittatuko dittugun taberna honeik danak ondo zapaldu eta gero: Aldap**atik** Artxubiñera, handik kale aldera egin eta hurrengo sartu-urtena Otamendiñian egin giñuan. Handik beheratxuago fanda txinu**enian** sartu gintzuan batzuk eta beste batzuk Boisen. Torrena eta Umerez**ena** alde batera itzi gitxuan, zarrauta dagozelako, bestela hareittan be busti! Gero handik Naparrene**neko** kantoian ezkerrera hartu eta Atzeko kalera pasauta Iturritxora, ondoren Aloña Mendira, beheratxuago beste bat Baserritar**renian**. Handik Kale Barrira etorritta, Arranora, gero plazara, eta han taberna bat bakarrik bisittau giñuan, Oñati, kuadrillia ia potraka hasitta xaguan-eta. Ondoren Kale Zaharrera, eta, han lehenengo, Pakon**ian** hartu giñuan txikito bat, gero Luis**enian**, gero beste bat Onan, gero Illarramendiñen**eko** kantuetik behera fanda Aitta Madina kaleko Ongin beste bat eta, atzenian, halako baten Harripen akabo giñuan Bacoren omenezko ibillaldi loriotsua. Barkatu, gogorrenak, Kastillonari agur egindda, Debatarr**enian** akabo ei xuain. Eta handik xaguka-xaguka danok etxera.

Zenbat kontau ditxuagu? Arraixua, benetan diotsuet, aurtengo kinttuak marka guztiak apurtu ditxuagu. Orain egun batzuetan porrusaldia hartu bihar gibela garbiketako!

Lotu honeik berbook euren esanguriakin

ONTZIXAK I

- | | |
|------------------|---|
| 1. Pitxar, -ra | a. Ura edo esnia eruateko ebalten dan latuezko edo galtzairuzko ontzixa. |
| 2. Murko, -ua | b. Ardaux eruateko, gordeteko eta bertatik zuzenian erateko narruzko ontzi-moduko txikiña. |
| 3. Tupin, -ña | c. Bi zuloko eta helduleku bateko buztiñezko urontzi itxira. |
| 4. Zahato, -ua | d. Metalezko edo buztiñezko ontzi haundixa janak egosi eta gordetekua (txorixuak olixotan, arrautzak karetan...) Esap. <i>Konturatu orduko ardaux tupinkadia eran xok horrek.</i> |
| 5. Marmitta, -ia | e. Buztiñez, kristalez edo bestelako materialez eginddako ontzixa, aixkomente ura zerbitteko ebalten dana. |

Erantzunak: 1e, 2c, 3d, 4b, 5a

EUSKERAZ EGOGI

Bideklinaziñua

Bideklinaziñua da bi deklinaziño kasu gehiketia izenari, normalian *zeiñen* kasua (-re) + lekuzko kasuren bat (*nun*, *nungua*, *nundik*, *nora*, *norako*, *noraiño* eta *noruntz*). Eta formula hori askotan ebalten dogu establezimendu bat aittaketaruzkuan, baldin eta bere izenak edo gaitzizenak pertsona bateri edo famelixa bateri egitten baxao erreferentzia; bestelako kasuetan, hau da, izen arrunta edo propixua danian, edo marka komertzial bat danian, deklinaziño kasu normalak ebalten dittugu.

Etxe baten gaiñian berbetan gabiltzanian be sarri ebalten da bideklinaziñua, baiña orduan be, etxe horretan bizi dan pertsonaren izena, gaitzizena edo familixaren abizena aittaketan dogunian, bestela ez.

Oharra: Berba egitteruzkuan, tartekaitten dan noren edo *zeiñen* kasuko -re markia jan egitten dogu eta idazteruzkuan be halaxe itziko dogu.

Etxien izenak: *Juanenian, Bixentanian, Martoluenian, Marianetik, Patxiñera, Hipolittonekuak, dukienekuak, baiña alhondigakuak, mataderixakuak ...*

Denden izenak: *Irizarrenian, Terena, Hankaluzenian, Maibiñian, Eskolatxonian, baiña kooperatiban, Eroskin*
Tabernen izenak: *Pakonian, Txaketuanian baiña, Arranon, Aldapan, Iturritxon.*

Jatetxien izenak: *Paulitonian (Echeverria), Txarridunian, Anttonenian, baiña Etxe Haundin, Zurrusten, Sindikan.*

Fabriken izenak: *Garañian (Garairenean), Altunianian, Onraitianian, Arruenian, baiña ULMAn, NATRAn (Zahorren).*

Lekuzko kasuetan ebalten dogu aixkomente: *Pakonian, Pakonekua, Pakonetik, Pakonera, Pakonerako, Pakoneraiño, Pakoneruntz*

HISTORIA TXATALAK

Fundadoriaren
etxea

>Kale Barriako 10 zenbakidun etxea da argazkikoa. Garai batean *Fundadoriarena* bezala ezagutzen zena, bertan jaio zelako XV. mendeko bigarren erdian Oñatik historian izan duen pertsonairik ospetsuenetako bat: Rodrigo Mercado Zuazola mezenas eta apezpiku famatua, Sancti Spiritus unibertsitatearen eta parrokiako klaustroaren fundatzailea, besteak beste.

Ateburuan ageri den armarría hainbat lekutan ikus daiteke, hala nola, parrokiako klaustroan eta Zuazola beraren kapillan, nahiz unibertsitateko kanpoaldean eta barrualdean. Gogoratu, 1960. hamarkadararte Kale Barria bera ere Zuazola kalea izan zela.

Gerora, XX. mende hasieran Sukiatarrek Txarriduna jatetxe ospetsua jarri zuten etxe horretan bertan.

Uribarri

> Jerardo Elortza

Auzo honek ere badu, ba, zer azpimarratu. Orain lurrez txiki samarra den arren, XX. mendearren hasierara arte hedadura askoz handiagoa zeukan, gaur egungo Arantzazu auzoa Uribarri barruan sartzen baitzen. Erdi Aroaz geroztik agertzen zaigu Oñatiko paper zaharretan, Murgia auzoarekin batera **goiko leinuaren kokaleku nagusi** bezala, hau da, **Oiñaztarrren bandoarena**. Ganboatarrak, aldiz, herriko beheko aldean zuten euren gotorlekua: Torre-uzo, Garibai, Zubillagako lurretan.

Aloña mendilerroaren iparmalda aldapatsuen zati batean zabaltzen da **gehienbat Uribarri** edo Urubarri, oñatieraz esaten dugun legez. Ez da, agian, nekazaritzarako tokirik aproposenetakoa, soro asko pendizean dituelako, batzuetan goragotik jausitako haitzen oztupoekin, eta gainera paraje ainube samarra delako. Hala ere, **Oñatiko baserri historiko batzuk hemengoak ditugu**: Otadui, Urtzelai, Gogordo, Baltategi, Datustegi, Urteaga, Sagastizabal, Azkarra, Erostegei edota Soraluze.

Uribarritarrek labrantzan ez ezik, artzaintzan ere aritu ziren luzaroan. Ez Urbiako zelai klasikoetan, Domingo Agirreren *Garoa* nobelan adierazten den

AUZORIK AUZO

moduan, Eskista, Duru, Lizartza eta Belar aldeko larreetan baino. Inguru horietako kortak eta txabolak ez zegozkien auzo honetakoei bakarrik, baina, hurbiltasuna dela eta, bertakoak genituen Aloñaziarren eta Durun ibiltzen ziren artzainetarik asko. Azken hamarkadotan **ostalaritzak ere garrantzia aipagarria edukitu eta dauka** hemen: Txopekua jatetxe-sagardotegiak luzaroan, eta orainago Urteagain eta Soraluze jate-txeak.

Oñatiko baserri historiko batzuk auzo honetakoak ditugu

Pertsonaia ospetsuak jaio edota bizi izan ziren Uribarrin: adibidez, 1469an Arantzazuko Ama Birjinaren irudia aurkitu zuen **Errodrigo Baltategiko**, zorioneko artzaina; XIX-XX. mendeetan auzo-eskolako maisu gogoangarriak izan ziren **Pedro Migel Galarraga** eta **Felipe Jausoro**; txirrindularitzan 1930eko hamarkadan nabarmendu ziren Banastagingo **Klaudio Leturiaga** eta Soraluzeako **Gregorio Idigoras**, hogeita hamar urte geroagoko Jose Antonio Mur ahazteke; eta gazte samar joan zitzaizkigun bi bertolari fin ere eman zizkigun Uribarririk 1970 aldera: Gogordoko **Andres Kortabarría** eta Urtzelaiako **Emilio Urtzelai**.

Uribarriko ermita San Andres apostoluaren izenaren jabe da. Antzinako irudi batzuk gordetzen ditu, nahiz eta pare bat Donostiako Elizbarrutiko Museora eraman ziren duela zenbait urte: XIV-XV. gizaldiko Andra Mari bat eta XVII.eko beste San Pedro bat. Ermitaren aurrean, Arantzazurako errepidearen bestaldean, santutxo bat egon zen orain dela gutxira arte, goraxeago, Basaizpe-Konkena baserriaren parean, mantentzen denaren antzekoa.

NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haztendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



Ospittaleko eskolan ibillitako neskak

Orain Zuazola institutua daguen lekuan, garai bateko ospital zaharrian, karidadeko monjak eukain La Milagrosa kolejiotik herriko neskatilla mordua pasau zan urte askuan zihar. Mutikuak be bai, baiña zazpi urte bete arte bakarrik. Gaurko argazki honetan eskola horretan ikasten jardundako neska-talde ederra dakartzuegu. Eztira danak edade eta pentsakera berekuak, baiña bai gerra aurrian ospittaleko mojetan ibillitakuak. Urtero alkarketan ei ziran ikasle ohi horreik edo, orduan esaten zan moduan, **antiguas alumnas** izenekuak.

Behian ikusi leikienez, 1943an ataratako fotografia da, frankismuaren urte latzenetakuan. **Hala eta be, saiatu ziran neska gaztiok ondo guapa agerketako.** Kaletarrak dira gehixenak, baiña ez danak. Kalien izenak behin eta berriz ez jartiarren, laburdurak ebali dittugu: Atzeko kale (AK), Kale Zakarra (KZ), San Antue kele (SA) eta abar. Goitik behera eta ezkerretik eskumara hona izen-zirrindara luzia:

Goixeneko illaran: Gregori Kerejeta, Atzeko kaleko (AK) *Samaniegona*; Juanita Biain, Auzotxoko *Brunuena*; Rosa Madina, Arantzazu Ama kaleko (AA) *Txoriña*; Karmen Altube, Portaleku ondoko *Auzabarrakua*; Karmen Guridi, Kale Zaharreko (KZ) *Sabasena*; Karmen Gallastegi, San Antue kaleko (SA) *Loberana*; Juli Murua, KZeko *Xexpalena*, ospittalian hazi zan; Xixili Erostarbe, KZeko Faustino hojalateruenekua; Juli Arkauz, SAko *Kukarruena*; Malen Zulueta, KZeko *Enterradorienekua*; Rosarito Guridi, SAko *Txolonekua*; eta Sofia Kortabarria, KZeko *Bonbarduena*.

2. illaran: Pilar Losada, Kale Barrakua (KB); Maxima Lazkano, Kasablankakua; Kontxita Bikuña, SAkua; Pilar Kortabarria, KZeko *Agapittona*; Isabel Guridi, KZeko *Burdiñena*; Malen Berakoetxea ordiziarra, KZeko *Mikelaerreonian* bizi zana; Sabina Guridi KBko *Torrenekua*; Maria Dolores Igartua, Ama Bakardeko (AB) kalekua; eta Regina Kortabarria, KZeko *Agapittona*.

3. illaran: X. X.; Karmen Inza, Murgixako *Murguzur* baserrikua; Karmen Arabalaza, Olabarrietako *Artxubi* baserrikua; X. X., AAkua, gizona Aramaixuena; Pilar Biain, Mola kalekua (MK), *Perratzailliana*; Mari Tere Umerez, gerora izen bereko tabernan KBxan jardundakua; Karmen [X.], Aurelio Igartua barberuaren lehengusiniña; Felisa Dorronsoro, San Juan kalekua (SJ); [X.] Bikuña, SJko *Peñonekua*; Maritxu Lazkanoiturburu, KZekua; [X.] Aiastui, SJko *Otxuenekua*; Anjeles Biain, Kapantxoko *Txoriña*; Ageda Zubia, Larrañako *Ugarkalde* baserrikua; Anetxu Elortza, ABkua; Kasimira Kortabarria, KZeko *Bonbarduena*; eta Miren Iraola, MKkua, *Txapana*.

4. illaran: Susana Arregi, Santa Marinako *Teresatxuena*; Pepita Azpitarte, KZeko joskiña; X. X.; Maria Luisa Korkostegi, KBkua; Kandida Maiztegi, Patrua kalekoa (PK); Juanita Etxaniz, AKkua; Rufina Zelaia, PKkua; Isabel Maiztegi, PKkua; Juanita Murua, SJeko *Enterradorianekua*; Rosarito Ezkibel, SJko *Sindikakua*; Genobeba Elortza, SJkua; X. X.; Euxebi Ugarte, SAko *Larrastegikua*; eta X. X.

5. illaran: Dolores [X.], ospitaleko musika-maistria; Adelaida Korkostegi, KBkua; Maria Anjeles Ugarte, plazako *Estanku Zabarrekoa*; Dorotea Madinazkoitia, KZekua, alkarteko sekretarixia; Sor Paulina Okariz, monja eta maistria; Sor Aurelia Garaikoetxea, ospitaleko superioria; Benita Ugarte, SAko *Gaiñenekua*, alkarteko presidentia; X. X., Olabarrietakua; X. X., Olabarrietakua; X. X., Olabarrietakua; Kandi Zulueta, KZeko *Enterradorienekua*; Maria Urmeneta, KZekua; eta Irene Igartua, KBkua, *Altziñena*.

6. illaran: Karmen Iñarra, *Santa Anakua*; Eujeni Erostarbe, KZeko Faustino hojalateruenekua; X. X.; Euxebi Ugarte, SAko *Gaiñenekua*, Bidaurretan monja; Pilar Bikuña, SAkua; Maria Kortabarría, Mendiko kaleko joskiña; Ines Urtzelai, KZeko *Txi-kiñekua*; Maritxu Artza, KZeko *Ximonena*; Miren Elortza, ABkua; X. X.; Elisa Aranburu, Goribar auzoko *Santa Kataliña kua*; Tere Zubia, Larrañako *Ugarkaldekua*, Argentinara fan zana; Hermini Muñoa, KZekua; Modesta Igartua, Olabarrieta ko *Taberna Zabarrekoa*; eta Pantxita Zulueta, KZeko *Enterradorienekua*.

Beheko illaran, lurrian jarritta: Maritxu Ugarte, SAko *Gaiñenekua*, monja Ameriketara; Arantxa Arzuaga, *Xenena*, hau be monja gerora; Elisa Alberdi, KZekua; Isabel Mugartza, KZekua; Maritxu Erostarbe, KZeko Faustino hojalateruenekua; Rosario Korkostegi, KBkua, karidadeko monja izan zan; Juli Kortabarría, KZeko *Bonbarduena*; Felisa Arregi, Santa Marinako *Teresatxuenekua*; Juanita Bikuña, SAkua; eta Luzia Kortabarría, KZeko *Agapitona*.

J. E.

Argazkiza Artza-Zelaia familixiaren bittartez eskuratu dogu. Argibidiak danetarikuak izan dittugu, batzuk anoni muak, eurak hala eskatuta, eta beste batzuk izendunak: Dolores Igartua, Xixili Igartua eta Mila Ezeolaza. Milla esker danoiri.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxori Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20



COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 3 • 20560 Oñati

☎ 943 089 806 ✉ cinb@coinbroker.euz
🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.euz



BURRUST

TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



GAK
Garbitzearen eta konponketaren enpresa

653 70 45 47
Oñati

PINTURAS

URBIA

MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKO EKOLOGIKOA

ZURE ETXEBIZITZARAKO



Babestu hotzetik neguan



Babestu berotik udan

Hezetasunak saihestu



Isolamendu akustikoa



Energia aurreztu

Sua hedatzea saihestu



*Energian aurreztu
eta lotu intimitatea*

GURE BERMEA

Informatu zaituz
konpromezurik gabe!



OBRARIK GABEKO
INSTALAKUNTZA



EGUNBATERKO
LANA



ENERGIA
AURREZTEA



Izaneko

ISOLAMENDU TERMIKO EKOLOGIKOAK

Zubillaga industrialdea 76
T. 637 304 574

isolamenduak@izaneko.com

www.izaneko.com